



2023 Memoria

Uvesco gizartean





01 GURE LEHENDAKARIAREN GUTUNA	04
02 2023. URTEAREN LABURPENA	08
Uvesco dinamizatzaileria eta motor ekonomikoa	10
Hazkunderaren aldeko apustua	12
Denda iraunkor eta eraginkorrak	14
Bultzada ekintzaileei	16
03 UVESCO EREDUA	18
Aberastasun eta balio sortzailea bere ingurunean	20
Uvescoren DNA	22
Balioak	25
Eragin ekonomikoa	27
Eragina erronka globaletan	28
04 GURE ERAGINA	32
04/1 BEZEROENTZAKO ONURAK	36
Leialtze programak	38
Bezera programari lotutako abantaila eta aurrezki gehiago	40
Adinekoentzako telefono bidezko zerbitzua	43
E-commerce-ren sendotzea	44



04/2 EKINTZAK SOZIAL ETA SOLIDARIOAK	46
Gizarte eta kultura sarean dugun eragina	48
Komunitateko elkarte sarea aktibatzen	49
Elikagaietan aurrezte	51
Ekintza solidarioak	54
Gizarte eta kultura jarduerak	58
Babesletzak eta kirol klubak	63
Kirol jarduerak eta ohitura osasungarriak	64
04/3 ERAKUNDEAREN ONGIZATEA	68
Gure profesionalen ongizatean dugun eragina	70
Lanpostuen egonkortasuna	72
Lana eta bizitza pribatua kontziliatzea	75
Segurtasuna, osasuna eta ongizatea	79
Informazioa eta komunikazioa	84
Trebetasunen prestakuntza eta garapena	86
Integrazio kultura	88
Karreraren garapena. Harrobi Plana	91
Bizi estilo osasungarria sustatzea	92
04/4 ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA KALITATEKOA	96
Konpromisoa dugu tokiko eta sasoiko produktuekin	98
Aliantzak lehen sektorearekin	102
Kantauriko kostaldearen balioa erakutsiz	107
Elikadura osasungarria eta kalitatezkoa	108
Freskoaren kalitatea eta zaintza, jatorritik	111
Bio/eko kategorien eta momentuan prestatutako plateren aldeko apustua	113
04/5 IRAUNKORRA ETA ERAGINKORRA	114
Iraunkortasun plan estrategikoa	116
0 CO ₂ isuri, kontsumo elektrikoagatik: erronka bete dugu	123
Supermerkatu eko-eraginkorrak	124
Karbono aztarna murriztea: ardatz estrategikoa	126
Karbono aztarnaren konpentsazioa	129
Elikagaiak alferrik galtzeko joera murriztea	131
Hondakinak bereiztea eta birziklatzea	134
Eko-ontzien erabilera eta plastiko birziklatuaren aldeko apustua	138
Ordainagiri digitala	140

01

Gure lehendakariaren gutuna

Bezeroei begira eta gure eskaintza unean uneko egoerara egokituta hazi izan gara, gure erakundearentzat negoziatzina den zerbaiti uko egin gabe: kalitatearen eta produktu freskoaren aldeko konpromisoari, hain justu. Egokitzeko gaitasun horri esker, gure supermerkatu eredua hedatu eta sendotu ahal izan dugu.



Gure ingurunearen ongizatea elikatzen dugu

Uvesco Taldean, bezeroei begira eta gure eskaintza unean uneko egoerara egokituta hazi izan gara, gure erakundearentzat negoziatzina den zerbaiti uko egin gabe: kalitatearen eta produktu freskoaren aldeko konpromisoari, hain justu.

Gure ibilbidean zehar, egokitzeko gaitasun horri esker, gure supermerkatu eredua hedatu eta sendotu ahal izan dugu iparraldean (Euskadi, Kantabria, Nafarroa eta Errioxa), eta baita Madrilgo Erkidegoan ere, non BM Supermerkatuen hedapena bideratzen ari garen.

2023an, urrats erabakigarriak egin ditugu gure plan estrategikoetan, pertsonen laguntzea eta kalitatezko elikagaiak eskuratzeko modua erraztea ardatz hartuta -kontsumitzaileentzat

kezka izaten jarraitzen du eta-. Ekintza horien artean, honako hauek daude: produktu freskoarekin dugun konpromisoa indartzea; produktuen aukera sorta berrikustea eta BM marka merkaturatzea (kalitatearekin dugun konpromisoa indartuz); eta eskaintzak indartzea, gure kanalean -fisikoa eta digitala-, gero eta anitzagoa den eta bere osasunari eta inguruneari buruz kontzientzia handiagoa hartzen duen biztanleriaren beharrei erantzuteko.

Era berean, 2023an, gizarteari egiten dizkiogun inpaktu eta ekarpenei buruzko hausnarketa egin dugu, Gizarte Erantzukizuneko gure Plan Estrategikoaren esparruan. Hausnarketa horrek aukera eman digu gure posizionamendura -eta merkatuan bereizten gaituzten balioetara- gehiago hurbiltzeko. Tokiko hornitzaileekin



dugun lankidetzaz ari gara (gure produktuen kalitatea eta hurbiltasuna eskaintzen digutenak), Taldea osatzen duten pertsonen (gure ageriko aurpegia direnak eta bereizten gaituen tratatu bereizgarria eskaintzen dutenak), eta baita gure kudeaketa jasangarri eta eraginkorraz ere, 2024-2030 Jasangarritasun Estrategiaren ardatzak definituta.

Horrekin guztiarekin, gure erantzukizunak balioa eta kalitatea ematen jarraitzera eta gure ingurunearen ongizatea elikatzen jarraitzera bultzatzen gaitu, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta jasangarriagoa eraikitzeko asmoz.

Azken batean, pertsonekin arduratsuak izan nahi dugu, bizi kalitate hobea izan dezaten laguntzeko -kalitatezko elikaduraren bidez-,

haien eta beraien senitartekoen ongizatea zaindu dezaten nahi dugu, eta pertsona guztion ahaleginak elkartuz, ingurumena errespetatzeko gai izatea nahi genuke, Garapen Jasangarriko Helburuekin bat etorritz.

Uvesco Taldeko lehendakaria

José Ramón Fernández
de Barrena Bermejo

02

2023. urtearen laburpena

Uvesco dinamizatzailea eta motor ekonomikoa. Irekierak bultzatuz; proposamen komertziala indartuz, aukera berrikusiz eta BM marka sartuz; eta digitalizazioan aurrera eginez, omnikanalitatea lortzeko eta gure bezeroei erosketa errazteko.



Uvesco dinamizatzailea eta motor ekonomikoa

Testuinguru inflazionista batera egokituz

2023an, kontsumo ohituretako aldaketek norabidea markatzen jarraitu dute banaketaren sektorean -azken urteetan, testuinguru inflazionista batek eraginda egon da, kostuen eta lehengaien igoeraren, horniduren krisiaren eta Europako gerren ondorioz-. Egoera horrek ekarri du urtean egindako **ahaleginak kontsumitzaileen premia berrietara egokitzera bideratzea, izan ere, kontsumitzaileak aurrezkiagatik kezkatuago egon dira**, baina kalitatea eta hurbileko produktuak baloratzen jarraitu dute (horrek uzten digu gure supermerkatu eredua alderatu apustuari eusten).

Egindako ahaleginaren ondorioz eta balio sorrerarekin eta garapen ekonomikoarekin dugun konpromisoari esker, aurreikuspenak betetzea lortu dugu, eta banaketa enpresa liderren artean mantendu gara, hurbileko supermerkatuen eredu batekin. Eredu horretan, bezeroei zuzenduta egon da fokua, eta sustapenen estrategia bat garatu dugu, aurrezkiak bultzatuz eta kalitatezko elikagaiak eta produktu freskoak eskuratzea erraztuz (BM eredua zutabea eta kaltetu nagusia, azken urte honetan).

Testuinguru horretan, **LEHENTASUNEZKO HIRU ARDATZ**etan oinarritutako plan bat garatu dugu. Lehenik eta behin, hazkundera oinarrituta -dendak irekiz eta gure dendak hobetuz-, funtsezkoa baita eragile ekonomiko eta enplegu sortzaile izaten jarraitzeko. Bigarrenik, gure aukera indartuz -produktu freskoa indartuz eta BM marka sartuz-. Eta, hirugarrenik, digitalizazioa eta omnikanalitatea lantzen jarraitzeko dugun helburuarekin.

01

Hazkundera

Dendak irekitzea eta ekintzailatza sustatzea

02

Proposamen komertziala indartzea

Aukera berrikustea eta BM marka sartzea

03

Digitalizazioko aurrerapenak

Oraineko eta etorkizuneko gakoak, omnikanalitatea lortzeko eta erosketak errazteko



UVESCO ZENBAKITAN

DENDAK

295

FAKTURAZIOA

1.072M€

INBERTSIOA

36,5M€BERTAKO
HORNITZAILEAK**248M€**ELIKAGAI
BANKUAK**626T**DENDAKO EMAKUME
ARDURADUNAK**%61**DESKONTUAK,
TXARTELAK ETA BONUAK**28M€**ONURA FAMILIA
UGARIENTZAT**1,5M€**JOAN-ETORRI
IRAUNKORRAK**%27,8**

ENPLEGATUAK

6.176SOLDATA ETA
ONURA SOZIALAK**205,4M€**INBERTSIOA
PRESTAKUNTZAN**5,2M€**BIRZIKLAPEN TASA
(IRUNGO LANTEGIAK)**%95**ONTZIETAN
BIRZIKLATUTAKO
PLASTIKOA**%50**

ENERGIA AURREZPENA

101.799KWh

Hazkundearen aldeko apustua

7 saltoki berri

2023an, BM eredia hedatzeko planari eutsi diogu, eta horrek dendak irekitzea aurreikusi du, bai Madrilgo Erkidegoan eta erdialdean, bai EAEn eta Nafarroan. Horrela, **Madrilen, lau establezimendu gehiago ireki ditugu -eta horrek Madrilgo lehen banaketa operadoreen artean mantentzen gaitu, azalera-**.

Iparraldeko eremuari dagokionez, hiru supermerkatu gehiago ireki ditugu -horrek, ezarritako beste denda batzuen erreformekin batera, penintsularen iparraldean gure lidergoa indartzeko eta mantentzeko aukera ematen digu, bertan baitugu gure jatorria-.

**7 Saltoki
propio
berri**

4 - MADRILGO AUTONOMIAN
1 - NAFARROAN
1 - GIPUZKOAN
1 - ARABAN

**272 Supermerkatu
propioa**

205.999 m²

BIZKAIA: 100 supermerkatu, 66.043 m²
GIPUZKOA: 56 supermerkatu, 41.236 m²
ARABA: 10 supermerkatu, 9.607 m²
NAFARROA: 25 supermerkatu, 24.260 m²
KANTABRIA: 26 supermerkatu, 18.084 m²
ERRIOXA: 6 supermerkatu, 6.210 m²
MADRIL: 46 supermerkatu, 38.470 m²
AVILA: 2 supermerkatu, 1.374 m²
GUADALAJARA: supermerkatu 1, 716 m²



Denda iraunkor eta eraginkorrak

Eraberritzeak

Dendak eraberritzeko eta hobetzeko inbertsioa etengabekoa da Uvescoren inbertsio planetan, **supermerkatu eguneratuak eta azken berrikuntzadunak edukitzeko eta erosketa esperientziarik onena eskaintzeko asmoz, betiere.**

Arlo horretan, 2023an, hiru supermerkatu eraberritu ditugu erabat, eta hobetzeko eta eguneratzeko beste obra eta jarduketa batzuk ere egin ditugu beste hogeiren bat dendatan.



Dendak eraberritzeko eta hobetzeko inbertsioa etengabekoa da Uvescoren inbertsio planetan, supermerkatu eguneratuak eta azken berrikuntzadunak edukitzeko eta erosketa esperientziarik onena eskaintzeko asmoz, betiere.

Eraberritze lan horietan, altzariak aldatu ditugu, korridore zabalagoak egiteko, eta salgaien eskaintza optimizatzeko espazioa aprobetxatzeko: hozkailu berriak jarri ditugu; argiak aldatu, eta salmahaiak eta freskoen atalak berrantolatu ditugu, erakutsi beharreko produktuei toki handiagoa emateko. Jarduketa

horiei esker, gainera, energia aurrezteko irizpideak sartu ahal izan dira, eraginkortasuna hobetu eta ingurumena zaintzen laguntzen duten argi berrieekin (gure Erantzukizun Plan Estrategikoan ezarritako helburu iraunkorretako bat).



Bultzada ekintzaileei

23 frankizia - 6.175 m²

Gure denda propioei 23 establezimendu gehitu zaizkie, frankizia formatuan, eta horiek garapen ekonomikoa eta balioa sortzen laguntzen dute, dauden herrietan. Aldi berean, 2016an abian jarri genuen garapen bide horrek enplegua sortzen laguntzen du -Uvesco Taldearen konpromisoetako bat-, eta hori, zuzeneko enpleguen bidez ez ezik, frankizia formularen aldeko apustuaren bidez ere betetzen dugu.

Formula honek aukera ematen die BM ereduarekin bat egin nahi duten ekintzaileei etorkizuneko aukerak dituen supermerkatu errentagarri bat zabaltzeko, eta, hala, herri txikietan garapen profesionala bultzatzeko.

Frankizia horien alde egiten duten pertsonen gure erabateko laguntza dute: finantza aholkularitza, bideragarritasun eta aseguru planak; aukera eta zerbitzu logistikoa; Taldeko langileentzat laguntza eta prestakuntza... Horrek guztiak mesede egiten dio ekintzaileari, pozik baitago Uvescoko kide izateagatik, eta, era berean, lagungarria da denda horien bidez BM eredu mantentzeko ere. Era horretan, BM Shop-ek BM Supermerkatuen formatua errepikatu du, kalitatezko eta aukera anitzeko produktuarekiko konpromisoari dagokionez, eta, aldi berean, elikadura osasungarriaren aldeko gure apustua indartu du.

F R A N Q U I C I A



Gure frankizia eredu

Finantza aholkularitza;
Aukera eta zerbitzu logistikoa;
Taldeko langileentzat laguntza eta prestakuntza...





Gure misioa: pertsonen eskura kalitatezko produktu ugari jartzea, zerbitzu bikaina eta bereizgarria emanaz, elikadura osasungarriaren inguruan, kontsumitzaileekin erabateko konfiantzazko harremana sortzeko eta, kudeaketa horren bidez, bizi kalitate handiagoa emateko eta gizarte bidezkoagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko.



Aberastasun eta balio sortzailea bere ingurunean

Gure ingurunearen ongizatea elikatzea

Pertsonen eskura kalitatezko produktu ugari jartzea, zerbitzu bikaina eta bereizgarria emanez, elikadura osasungarriaren inguruan, kontsumitzaileekin erabateko konfiantzazko harremana sortzeko eta, kudeaketa horren bidez, bizi kalitate handiagoa emateko eta gizarte bidezkoagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko.

Supermerkatuen kokapen estrategikoa -bizitegi eremuetan eta kontsumitzaileak erraz iristeko moduko espazioetan- funtsezkoa da helburu hori lortzeko; izan ere, merkataritza jardueran parte hartzen duten pertsonen eta eragileen arteko tratua hurbila eta zuzena ahalbidetzen du. Alde batetik, etxebizitzak hurbil daudenez, oso harreman estua lor daiteke bezeroekin,

maiz joaten baitira establezimenduetara; eta, bestetik, tokiko produktuan eta OKm-koetan oinarritutako ereduaren bidez, hornitzaileek, sarri askotan, harreman zuzena izan dezakete saltokiarekin, eta ez dute bitarteko garraiobideen beharrik.

Kokapen estrategikoa,
egoitza guneetan eta
kontsumitzaileentzat
irisgarritasun errazeko
espazioetan.



Uvescoren DNA

Hazten laguntzen diguten printzipioak

Gure jarduerak eta garapenak merkataritza estrategia oso argi bat du motor gisa, 1993an Uvesco Taldea osatzea ekarri zuena, bi banaketa enpresa betetanok bat egitearen ondorioz. Une horretan, bi alderdi fundatzaileen esperientziak eta puntu komunek aukera eman zuten gure ezaugarriak eta taldearen zutabeak markatzeko eta estrategia definitu batekin eta hazkunde proiektzio batekin beste etapa bat hasteko, garapen iraunkorrean eta kalitatean oinarrituta, eta zerbitzuan eta produktu fresko zein tokikoaren ezaugarriekin -gaur egun ere, ezaugarri hori da gure jardueraren adierazleetako bat-.

Aldi berean, gure zutabeak erreferentzia puntu gisa izanda, gure hazkunde planak bezeroarengan oso bideratuta egon dira, eta horrek aukera eman digu merkatuko inguruabarretara egokitzeko, oso aldakorrek eta ziurgabeak, batez ere azken urteotan, egokitzapena gure estrategian txertatzera eraman gaituztenak, aurrera egiteko trankzio motor gisa. Gure jatorriarekin eta zutabeekin dugun konstantzia eta konpromisoa funtsezkoa izan da gure ibilbidean eta gure supermerkatuen hazkundean, gure bi bereizgarriek ordezkaturak (Super Amara eta BM Supermerkatuak).



UVESCO EREDUAREN ZUTABEAK (BM/SUPER AMARA)

Konfiantza eta segurtasun harremana

Kontsumitzaileekin konfiantzazko eta segurtasunezko harremana sortzea, kalitatezko produktuak, aukera zabala eta neurrira egindako deskontuak eskainiz.

Elikadura osasungarriaren sustapena

Elikadura osasungarria sustatzea, honako hauen bidez: produktu freskoaren goraipamena, espezialistek artatutako erakusmahaiak eta nekazaritzako elikagaien sektorearekiko akordioak.

Zerbitzu bikainaren lehenespena

Bezeroari zerbitzu bikaina ematea lehenestea, sekzioetan arreta eskainiz eta zuzeneko komunikazio kanalak gaituz (dendako langileen eta teknologia berrien bidez).

Konpromisoa prestakuntzarekin

Prestakuntzarekiko, talentua garatzearekiko eta langileen aintzatespenarekiko konpromisoa, kalitatezko enplegua bermatzeko.

Komunitateari laguntzea

Komunitateari laguntzea, bere gizarte eragileen bidez, bere denden inguruan premia duten pertsonengan eta kolektiboetan eragina izan dezan.

Garapen iraunkorra bultzatzea

Komunitatearen garapen iraunkorrari laguntzea, kudeaketa logistiko eta komertzial arduratsuaren eta ingurunearekiko errespetuzkoaren bidez.

Apustu horri esker, etengabeko hazkundera izan dugu -merkatuan eta sektorean izandako gorabehereri aurre eginez-, eta erakutsi dugu eredu iraunkorra eta fidagarria dugula. Hori COVID-19ak eragindako krisian erakutsi genuen, sasoi horretan banaketaren sektorea protagonista bihurtu baitzen. Guk aparteko ahalegina egin genuen, eta erakutsi, gure ereduak bezeroen konfiantza izan dezakeela egoera okerrenetan ere.

Baina, gainera, merkataritza jardueraren kudeaketa eraginkorrerako, funtsezkoa da Taldea osatzen duten pertsonak ere zutabe horiek partekatzea. Uvesko Taldeko arlo guztietako profesional denak dira pertsona konprometituak eta bokazio bera duenak -bezeroarenganako zerbitzura bideratutakoa-. Pertsona horiek enpresaren zutabeak praktikan

jartzen dituzte, helburu komun bera lortzeko: kalitatezko zerbitzua eta erosketa esperientzia onena eskaintzea, merkataritza zutabe eta irizpide berberetan oinarrituta.

Gure printzipioei buruzko ikuspegi partekatuaren bidez soilik egin daiteke kudeaketa eraginkorra, eta soilik horrela lor daitezke emaitza positiboak enpresaren balantze orokorrean. Ikuspegi horrek berarekin dakar Uvescoko arloek gauzatzen duten jarduera guztiek zentzu bakarra izatea, eta, horren ondorioz, gizartean eragin positiboak eta kalitatezkoak sortzea.



Balioak

Gizarte osasuntsu, solidario eta oparoarekiko konpromisoa

Gure jarduera sei jardun arlo zehatzetan oinarrituta garatzen da, eta arlo horiek gure kudeaketa markatzen dute, bai eta gure balio

katea osatzen duten eragileekin eta ingurunearekin daukagun harremana ere.

Aliantzak lehen sektorearekin

Km0-ko produktuak indartzean eta lehen sektorearekin aliantzak sortzean oinarritutako supermerkatu eredua dugu; eta produktu horiek merkataritza jardueraren garapen iraunkorra ahalbidetzen dute.

Gizarte Eragileekiko hurbiltasuna

Inguruko elkarte eta kolektiboekin lankidetzan arituz, horrek ahalbidetzen baitigu hurbileneko bizitza sozialean parte hartzea eta larrialdi egoeretan premia handiena duten kolektiboek laguntza zerbitzua ematea.

Aukeratzeko ahalmena

Bezeroen aukeratze ahalmenaren aldeko apustua egiten du, lehen marketako eta BM markako 17.000 erreferentziaren aukera eskainiz. Horrekin batera, eskaintza, deskontu eta abantaila ugari daude erosketaren gastua murrizteko (kontsumitzailea da protagonista).

Enpleguaren kalitatea

Kalitatezko enpleguaren alde egiten dugu, langileen prestakuntzan, onura sozialetan eta pertsonen segurtasunean eta ongizatean inbertsioak eginez. Horrek guztiak eragina dauka zerbitzuaren bikaintasunean.

Pertsonen ongizatea eta osasuna

Produktu freskoetan oinarritutako elikadura osasungarri eta osasuntsua lehenesten dugu, horrek ahalbidetzen baitu herritarrek bizi kalitate hobea izatea, eta, beraz, gizarteak osasunean eta ongizatean onura handiagoak izatea.

Berrikuntza eta teknologia

Garapen digitalarekin bat etorri eta teknologia berrietara egokitzea funtsezkoa da baliabideei modu efizientean etekina ateratzeko eta lanaren kalitateari eta erosketara egiteko erraztasunei lotutako hobekuntzak lortzeko.

Uvesco Taldeak aberastasuna eta balioa sortzen ditu bere ingurunean, eta hori banaketa sektoreko beste eragile batzuekin duen harremanari eta elkarrekintzari esker da posible, horiek ere merkataritza jardueran sartzen baitira. Eragileen arteko harreman eta komunikazio egokia beharrezkoa eta baliagarria da merkataritza jarduera arrakastatsua lortzeko. Harreman horretan, Uvesco Taldeak bere balio katea bideratu eta koordinatu behar du, motor ekonomikoa baita.

Kanpoko interes taldeetan, alde batetik, banaketa sektoreko hornitzaileak eta hartzekodunak daude, haiekin harremanetan jartzen baita establezimenduetako produktuak eta elikagaiak hornitzeko; bestetik, bezeroak,

merkataritza jardueraren hartzaileak direnez gero; eta, azkenik, Uvescorekin harreman zuzena eta estua duten langile eta gizarte eragileak, horiei esker eragin positiboa baitu Uvescok gizartearen bizi kalitatean eta ongizatean. Azken batean, interes taldeekin kudeaketa egokia egiteak aukera ematen dio bere jarduera modu orekatuan, iraunkorrean, bidezkoan eta inpaktu sozioekonomikoekin gauzatzeko.

UVESCOREN INTERES TALDEAK

KANPOKOAK

Hornitzaileak, hartzekodunak, kontsumitzaileak eta komunitatea.

BARNEKOAK

Enpresaren gobernua eta langileak.





Eragin ekonomikoa

Gure inguruan sortutako balioa

Uvesco Taldearen merkataritza jarduerak eta daukan tokiko izaera nabarmenak balio ekonomikoa sortzen dute, eta balio horrek, aldi berean, eragina dauka bere jardueran parte hartzen duten hainbat eragiletan: hornitzaileak eta hartzekodunak, langileak eta gizartea, oro har.

Eragin ekonomiko horrek balioa sortzen du inguruko hainbat eremutan: enplegua, garapen eta kohesio soziala, osasuna eta ongizatea sustatuz, eta gizartearen garapen bateratu eta iraunkorrerako neurriak babestuz.

BANATUTAKO BALIOA

SOLDATAK ETA ONURA SOZIALAK

205,4M€

TOKIKO HORNITZAILEEI EGINDAKO EROSKETAK

248M€

INBERTSIOA KOMUNITATEAN

3,5M€

INBERTSIOAK

HEDAPEN ETA I+G+B PROIEKTUAK

36,5M€

ZERGAK

ORDAINKETAK ADMINISTRAZIOEI

105M€

Eragina erronka globaletan

Helburuak partekatzen ditugu

Uvesco Taldearen jarduerak ingurunean dituen eraginak Gizarte Erantzukizuneko Estrategiaren barruan sartzen dira.

Estrategia horren helburua da gizarte eragile gisa duen konpromisoaz eta eginkizunaz jabetzea, eta, aldi berean, gogoeta hori Taldean parte hartzen duten eragileen eta pertsonen artean zabaltzea.

Plan horretan ezartzen da gizarteko, ekonomiako eta ingurumeneko zer alderditan duen inpaktua gehienbat gure jarduerak, Nazio Batuek 2015ean definitutako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) bat etorritz, horietan markatzen baitira mundu justuago bat lortzeko mundu mailan hobetu edo landu

beharreko inpaktu sozialeko eremuak.

Uvesco Taldeak ekarpena egin dezake erronka horietako bakoitzean; hala ere, **bederatzi GIH** antzeman dira, eta horietan gehiago bereizi gaitezke, gure konpromisoa egituratzen dute-eta. Beharrezko konpromisoa da, administrazio publikoen eta gizarte erakundeen eskutik gizarte iraunkorrago eta bidezkoago bat eraiki ahal izateko.

Era berean, helburu horiei ekarpena egiteko erantzukizuna transbertsala da talde osoarentzat, baina garrantzi berezia du Uvesco Taldeko Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Batzordean.




Batzorde horretan, non taldeko sailek ordezkaritza duten, Taldearen barruan Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin lotutako gaiak eztabaidatzen dira, eta, aldi berean, hainbat sailen inplikazioa dakarten ekintzak koordinatzen dira, eta irekita dauden ildoen jarraipena egiten da. Batzorde hori bi hilean behin elkartzen da, eta Uvesco Taldeko finantza zuzendariak presiditzen du.

Hala, Uvesco Talderako material gisa identifikatutako alderdiak honako GJH hauekin korrelazioan daude. Puntu horiek, era berean, 2023an garatutako Iraunkortasun Estrategian ezartzen diren **interes esparru nagusiekin lerrokatuta daude:**

Nazio Batuek definitutako Garapen Iraunkorrerako Helburuen gaineko eragina

Uvesco Taldearen alderdi materialen eta GIHen arteko korrelazioa



Uvesco Taldeak eragina daukan jarduera eremu nagusiak



Ekarpenak elikagaien bankuetara.

Dohaintza proiektu pilotuak zuzenean dendatik, Orekarekin eta Phenixekin.

Dohaintzak GKEei: Lagael, Activa'TT...

GKEen sentsibilizazio kanpaineekin lankidetzat: Unicef, Cáritas...

Aurrezteko modua familia ugariantzat.



Aurrezteko modua pertsona zeliakoentzat.

Adinekoentzako telefono bidezko arreta zerbitzua.

Gizarte onurak enplegatuentzat.

AECRen bidez, minbiziaren aurka borrokatzeko ekarpen ekonomikoa.

"Zaindaz bizi" programa, elikadura zaintzeko.

"Uvesco Proiektu Solidarioa" abian jartzea.



Kontziliazio eta genero berdintasunerako programak.

Ziurtagiri profesionalak.

Enplegatuentzako barne sustapena.

Emakume arduradunen postuak sustatzea.



Kontsumo elektrikoaren %100, energia berriztagarrietatik etorritakoa.

Urteko inbertsioa efizientzia energetikoko neurrietan, dendetan eta bulegoetan.



Tokiko gauzak erostea bultzatzea eta erosketa mota horren garapenari bultzada bat ematea.

Hornitzaileekin eta frankiziadunekin epe luzerako harremanak sustatzea.

I+G+b inbertsioak.

Deskontua langileentzat.

Leialtze programaren digitalizazioa.



Hauek dira ildentifikatu diren eta GIH bakoitzerako ezarritako jomugak lortzen laguntzen duten ekintzak:



Bertako kausa solidarioekin inplikatzeari.
Hitzarmenak tokiko lehen sektorearekin.
Akordioak kultura eta kirol taldeekin.
Kirol eta kultura jarduerak bultzatzea.
Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak supermerkatuetan.



Taldearen iraunkortasun estrategia eta politika definitzea.
Zeharkako ekimena, elikagaiak xahutzea detektatzeko eta prebenitzeko.
"Too Good To Go" programa aplikatzea, Taldeko BM denda guztietan.
"Azken minutua" proiektua, Super Amarako dendetan, elikagai-soberakinak emateko.
Plastiko birziklatuko ontziak, poltsak eta botilak erabiltzea.
Welfair ziurtagiria / Animalien ongizatea.
Oilaskoaren Europako Konpromisoari atxikitzea (ECC European Chicken Commitment).
AENORen Zero Hondakinen Ziurtagiria Irungo instalazio logistikoetan.
Ordainagiri digitalaren aukera, papera murrizteko helburuarekin.



Karbono aztarna %48 murriztea, 2018-2022 aldirian.
Etxez etxeko banaketaren %28 modu iraunkorrean egina (oinez edo ibilgailu elektrikoan).
Karbono aztarnaren konpentsazio partziala, Gipuzkoako Karbonoaren Borondatezko Funtzarekin.
Ibilbide logistikoak optimizatzea eta efizientziaz gidatzea.



Nazio Batuen Mundu Itunarekin bat egitea.
Lankidetzaren proiektuetan parte hartzea, hainbat kluster eta administrazioarekin.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Elikadura osasungarri eta iraunkorraren misioa" proiektuan parte hartzea.
Elkarlaneko hainbat kluster eta forotan parte hartzea: AECOC, Basque Ecodesign Center, Gipuzkoako Birziklatze Klusterra, ASEDAS, Basque Food Cluster, Logistika Klusterra, etab.

04

Gure eragina

Uvesco erantzule gizarte sarearekin eta gure inguruko garapen ekonomikoarekin. Gure erantzukizuna onartzen dugu, gure inguruko gizarte sarea eta garapen ekonomikoa bultzatuz, errespetu osoz.



Uvesco, bere ingurunearekin arduratsu

Gure erantzukizuna onartzen dugu, gure inguruko gizarte sarea eta garapen ekonomikoa bultzatuz, errespetu osoz. Alde batetik, kalitatezko enpleguen eta gure langileen prestakuntzaren alde eginez, horiek baitira gure zutabeetako bat. Bigarrenik, elikadura osasungarriaren alde eginez eta gizarte ongizatea indartzen laguntzen duten elkartasun, kultura eta gizarte ekimenetan parte hartuz. Eta, hirugarrenik, iraunkorragoak izateko lan eginez, gure produktu fresko eta Okm-koen balioak indartuz eta gure baliabideak maximizatuz, ingurumenean izandako eragina murrizteko.



04/1 Bezeroentzako onurak

04/1 Bezeroentzako onurak

04/2 Ekintzak sozial eta solidarioak

04/3 Erakundearen ongizatea

04/4 Elikadura osasungarria eta kalitatekoa

04/5 Iraunkorra eta eraginkorra



04/2 Ekintzak sozial eta solidarioak



04/3 Erakundearen ongizatea



04/4 Elikadura osasungarria eta kalitatekoa



04/5 Iraunkorra eta eraginkorra



Bezeroentzako onurak

Leialtze programak. Gure kudeaketa komertzial guztia azpimarratzen dugu, erosketan gogobetetzea lortzea eta gure bezeroei erosketa esperientziarik onena eskaintzea.



Leialtze programak

Aurrezteko neurriak

Gure kudeaketa komertzial guztia azpimarratzen dugu, erosketan gogobetetzea lortzea eta gure bezeroei erosketaren esperientziarik onena eskaintzea. Horretarako, Taldearen zutabe eta balioetan oinarritutako jarduera bat gauzatzen dugu, **jarduera komertzial bizi batekin indartzen dena, gure bezeroentzat etekin ekonomiko, abantaila komertzial eta aurrezki handienak eskaintzera bideratuta.**

Aurrezteko neurri sorta bat jarri ohi dugu gure bezeroen eskura, gure bi bereizgarriek (Super Amara eta BM Supermerkatuak) martxan dituzten leialtze programen bidez eskura ditzaten. Programa horiek hogeitaz urte baino gehiago daramate martxan, eta bezeroarengan jartzen dute arreta. Abantaila ugari eskaintzen

dituzte, eta gure hedapen planari esker, komunitatean duten eragina hazten ari da urtez urte.

Gaur egun, Taldeko supermerkatuei atxikitako 895.000 bezero baino gehiago ditugu, eta salmenten %84ko sarrera (kontsumo handiko sektoreko handienetako bat), zeinak erosleen konfiantza indartzen duen. Uvescon, era horretan, kalitate handiko sorta eta produktu freskoen aukera zabala kontsumitzaileen eskura jartzeko helburua betetzen dugu. Gainera, erraz eskuratu ahal izateko, bezeroei onura ekonomiko ugari eta deskontuak eskaintzen dizkiegu, eta erosketetan aurrezki itzultzen diegu.

ATXIKITAKO BEZEROAK 895.919

Bezero leialari egindako salmenta %84

BM KONTUA
832.798 bezero
SUPER AMARA TXARTELA
63.121 bezero



ONURA EKONOMIKOAK FAMILIENTZAT
(deskontuak, erosketak txartelak eta bonuak)
28M€

Bezero programari lotutako abantaila eta aurrezki gehiago

Kalitatezko elikadura izateko aukera errazteko

Azken urteetan, sustapen jarduera hori areagotu egin da. Lehenik eta behin, osasun krisiaren ondorioz; eta, azken urteetan, hornidura eta lehengaien krisiagatik, **azken bi**

urteetan gure bezeroentzat %20 aurrezki ekintza gehiago egitera eraman gaituelako, bezeroek kalitatezko elikagaiak eskuratzea errazago izateko.

Marka propioa, proposamen komertziala indartuta

2023an, beste pauso bat eman da, produktuen aukera sorta berrikusi, eta **BM marka merkaturatuta** -kalitate goreneko marka propio bat sortzeko, preziorik onenean, eta haren identifikazioa hobetzeko, kontsumitzaileek hautatzeko duten gaitasuna errazteko, aukera zabalarekiko eta kalitatearekiko gure konpromisoari eutsita-.

Horrela, marka berri horren pean, orain arte dendetan zeuden banaketa markak bateratu dira, zehazki hauek: IFA (Eliges, Sabe eta Unnia), Saski, Peñalabra, Bertako eta Selecta.

Aldi berean, aukera guztia berrikusi da, aukera eguneratzeko eta produktu berriak sartzeko, atal guztietako produktu sortak osatzeko.

Guztira, **oinarrizko 1.200 produktuk osatzen dute BM marka**, ontziratuetan eta freskoetan; hots, supermerkatuko erreferentzien %11.



BM MARKAKO ERREFERENTZIAK
1.200



Aurrezkiak eta abantaila segmentatuak

Azken urteotan eta digitalizazio estrategiarekin batera, programa hau bere abantailak handitzen ari da: eskaintzak espezializatu ditu -kontsumitzaile bakoitzaren beharretara modu segmentatuan eta egokituan bideratuta- eta deskontu gehiago egin ditu, batez ere freskoen ataletan (BM ereduaren ardatz nagusia, non eskaintzak aldizka indartu egiten diren erosketetan deskontu metagarri eta zuzeneko deskontu handiak eginda).

Aldi berean, bezero kontuaren aplikazio mugikorraren bidez, deskontuak eskuratzea erraztu da, eta eskaintza segmentatuak bultzatu dira, horiekin kontsumitzaileari are gehiago lagunduta berarentzat interesgarriak diren

produktuak eskuratzen. Eskaintzen dituen abantailek supermerkatu eredua indartzen dute eta bezeroek erosketetan fidelizazio handiago izatea ahalbidetzen dute.



Adinekoentzako telefono bidezko zerbitzua


Adinekoei erosteko aukera errazteko

Adinekoei erosteko aukera errazteko, **telefono bidezko erosketak zerbitzu** bat dugu. Horri esker, bezeroaren arretarako telefonoaren bidez, supermerkatu joateko edo *online* erosketak egiteko zailtasunak dituzten pertsona horiei laguntza eskaintzen diegu. Zerbitzu hori funtsezkoa izan zen 2020ko konfinamenduan.

400 eskaera ditu batez beste hilean, eta bereziki 65 urtetik gorako pertsonak dira telefono hori erosketak egiteko erabili ohi dutenak. Erosketa motari dagokionez, produktu freskoak pisu handia du. *Online* eskariekin egiten den bezala, bezeroaren gustura prestatzen dira produktu fresko horiek ere.

BAZ kontaktu motak 2023

- Informazioa
- Eskaerak
- Kexak
- Sugerencias



900 555 300



E-commerce-ren sendotzea

Gure digitalizazio estrategiaren zutabea


E-commerce garatzeko konpromisoa -gure digitalizazio estrategiaren zutabea, eta batez ere 2020tik aurrera izandako garapena-. Dagoeneko sendotuta dagoen zerbitzua da. Denda fisikoaren kalitate estandar berberak betetzen ditu, eta produktu freskoan jartzen du arreta. Garapen eta hazkunde ekonomikorako gure estrategian, funtsezko zerbitzua da. Horrela, gure erantzukizun plan estrategikoaren barruan kokatzen da, inguruan balioa eta hazkundera sortzen duen ardatz gisa.

Freskoaren aldeko apustua: eskarietan %30 produktu freskoa izanik, tresna digitalak Uvescoren supermerkatu eredua indartzen du.

*E-commerce*ren garapenak *online* erosketak egiteko joera duen kontsumitzaile gero eta

digitalago baten eskaerari erantzuten dio; garapen ekonomikoa bultzatzen du, teknologia sustatuz; eta, hirugarrenik, dendarako joan-etorriak murrizten ditu, eta horrek ibilgailu partikularra erabiltzeak ingurumenean sortzen dituen eraginak txikitzen ditu. *E-commerce* enpresaren ekosistema digitalaren funtsezko pieza izanik, gure bezeroak fidelizatzen laguntzen baitu, azken urte honetan apustu estrategikoa sendotu egin da.

Azken urtean, *online* salmentak %14 handitu dira, eta kanalean erosten duten bezero kopurua, %9.



Zerbitzua eboluzionatzen jarraitu dugu, omnikanalitatea bultzatzeko eta gure bezeroei esperientzia bikaina eskaintzen jarraitzeko. Ilido horretan, **online salmentarako plataforman hobekuntzak** garatu ditugu (sustapen berrien integrazioa, bilatzailearen hobekuntza, erosketa bideratzaileak, etab.), **“Click & Collect” zerbitzua hedatu dugu** (28 dendatara zabaltu da, eta hiru tenperaturako *locker* bat instalatu dugu, non bezeroek beren eskaera jaso ahal izango duten), eta **dendan eskaerak prestatzeko eredu operatiboaren ondoriozko prozesuetan jarri dugu fokua** -hobekuntzak

eginez, batetik, efizientzia handiagoz prestatzeko eta, bestetik, produktua bikaintasunez tratatzeko, produktu freskoen tratamendua azpimarratuta-. Horrez gain, *e-commerce-ren* garapen hau funtsezko pieza da Taldearen ekosistema digitalean, izan ere, gaur egun bezeroak jada erraz moldatu daitezkeen, baita nabigatu ere, eskura dituzten eta lotuta dauden ingurune digitalen bidez: **online denda, aplikazio mugikorra eta web orria**.

ONLINE ESKARIAK
^ %14

BEZEROAK
^ %9





Ekintzak sozial eta solidarioak

Bezzeroekiko dugun hurbiltasuna da ehun sozialean eragiteko aukera ematen digun eta gu parte gareneko komunitateari gure balioaren zati bat ematea ahalbidetzen digun konpromisoetako bat.



Gizarte eta kultura sarean dugun eragina

Gure balioetako bat: bezeroekiko hurbiltasuna

Gure balioetako bat bezeroekiko hurbiltasuna da. Gure saltokietan -gehienak egoitza guneeetan daudenak- oso tratu hurbila izaten dugu bezeroekin, eta ezaugarri horrek, gure ibilbidean zehar, gure jarduera egiten dugun tokiko gizarte sarearekin eta komunitatearekin loturak ezartzera eraman gaitu. Gure konpromisoetako bat da, eta aukera ematen digu, zuzenean, gizarte sarean eragiteko eta gu gauden komunitateari gure balioaren zati bat emateko.

Horrela, gure konpromisoa gizarte jardueretan parte hartzera bideratzen dugu, non kirola, jarduera fisikoak eta elikadura egokia bultzatzen diren. Eta, halaber, egoera ahulean eta gutxiengoan dauden edo elikadura

eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboek laguntzea. Bestalde, kirol klubei eta kultura elkarteek lagunduz ere bultzatu dugu gizarte jarduera. Horrek guztiak eragina du kohesio sozial hobean eta kultura iraunkor eta osasungarri baten sustapenean, non kalitatezko elikadura funtsezko zutabea den.

Gauzatutako ekintzekin, 1. eta 3. garapen helburuak (GIH) bete ditugu, komunitatearen osasuna eta ongizatea hobetzen dutenak eta premia handieneko kolektiboen pobrezia arrakala murrizten laguntzen dutenak.

ERAGINA KOMUNITATEAN

3.256.000€

ELKARTEAK ETA
KOLEKTIBOAK

752.000€

FAMILIA UGARIAK

1.551.000€

ELKARTASUNA, KULTURA
ETA KIROLA

953.000€

ELIKAGAI BANKUAK

566T

Komunitateko elkarte sarea aktibatzen

Hainbat elkarterekin ditugun akordioen bidez eta erosketetan aurrezteko eskaintzen ditugun aukeren bidez

Gure ezarpen eremuetako zeliakoen elkarteak

Hainbat elkarterekin ditugun akordioen bidez izan ohi dugu eragina komunitatean, eta horiei beren jarduera gauzatzen laguntzen diegu, eta, halaber, erakunde horietako bazkideei erosketetan aurrezteko aukera eskaintzen diegu.

Horrekin, kolektibo horiei laguntzeaz gain -ingurunearen gizarte eta antolaketa sarearen egonkortasunerako beharrezkoak ditugunak-, kalitatezko kontsumoa eta kolektibo horietako kide diren pertsonen eta familien ongizatea



sustatzen dugu, erosketetan abantailak baitituzte.

Hitzarmen horien artean, nabarmentzekoa da urteetan zehar, **gure ezarpen eremuetako zeliakoen elkarteekin** dugun harreman jarraitua. Elkarte horiei babesa ematen diegu, beren jardueraren garapenerako lagungarriak dituzten etekinen bidez.

Horrela, kolektibo horren onura bateratuan, bizi kalitatean eta ongizatean eragiten dugu. Baina

azpimarragarriena da, akordio horren bidez, glutenarekiko intolerantzia duten gero eta pertsona gehiago babesten ditugula. Pertsona horiek elkarte horiei atxikita daude, eta gure supermerkatuetako erosketa guztietan deskontu berezi bat jaso dezakete.

Hitzarmenak gizarte kolektiboekin

Era berean, inguruan kirol eta kultura jarduerak egiten dituzten gizarte kolektiboekin beste akordio batzuk ditugu, hala nola Irungo

Santiagotarrak, Tafallako Peña Sport eta Castro Urdialeseko La Marinera.

Bezeroentzako abantailak

Atal honetan, era berean, **bezeroen abantaila programaren** bitartez, gure jarduerak eragina dauka inguruko beste enpresa batzuetan eta hango langileengan ere. Zehazki, honako hauekin gabilta lankidetzan: Jasokunde

Kooperatiba, Laguntasuna Kooperatiba, Volkswagen Nafarroa, Sociedad Vascongada de Publicaciones, Petronor, ITP Zamudio, Bridgestone, Bilboko Zubiarte Merkataritza Gunea eta DV harpidetza kluba.

Elikagaietan aurreztea

Familia ugariak, intolerantziak dituzten pertsonak eta elikadura osasungarria

Familia ugariak

Pertsonen bizi kalitatea hobetzeko lankidetzan aritzeak konpromisoa eskatzen du elikaduran gastu handia duten familiekin; adibidez, familia ugariekin eta glutenarekiko intolerantzia duten pertsonekin. Bi kasuetan, hamar urte baino gehiago dira **%5eko deskontu berezia** eskaintzen duen programa bat garatu genuela, kolektibo horiek supermerkatuetan egiten

dituzten erosketa guztietarako -eta horrek dakar erosketa saskian eta familia ekonomian asko aurreztea-. 2023an, deskontu programa honi atxikitako 16.969 familia ugarik guztira 1,5M€ aurreztea lortu zuten.

FAMILIA UGARI ONURADUNAK

16.969

DESKONTUA

%5

GUZTIRA AURREZTUTAKOA

1,5M€



Intolerantziak dituzten pertsonak

Bestalde, **glutenarekiko intolerantzia duten pertsonen** mesede egiten dien aurrezki programa Zeliakoen Elkartekin lortutako akordioaren bidez gauzatzen da. Akordio hori indarrean dago BM Supermerkatuetan eta 3.143 pertsonak parte hartzen dute. Kasu honetan, gastu handiagoa duen sektore baten ekonomiari laguntzeaz gain -glutenarekiko intolerantzia duten pertsonentzako produktu espezifikoaren kontsumoagatik-, merkatuan bere neurriko produktu aukera lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bati babesa ematen zaio; izan ere, gero eta aitorpen handiagoa izan arren, produktu aukerak beste erreferentzia

batzuenak baino txikiagoa izaten jarraitzen baitu.

%5eko deskontua aplikatzen zaie euren erosketa guztiei, eta, beraz, beste produktu batzuk ere deskontuarekin kontsumi ditzakete -adibidez, frutak eta barazkiak, glutenik gabeko produktu espezifikoak ez izan arren, elikaduraren oinarria baitira-.

GLUTENAREKIKO INTOLERANTZIA
DUTEN PERTSONA ONURADUNA
3.143

DESKONTUA
%5

Uvesco osasuntsua; mesede egiten dizuten elikagaiak

Bezeroek hautatzeko duten gaitasunari eusteko eta herritarren premiekin bat datorren aukera bat izateko konpromisoaren esparruan, gure saltokietan **elikadura osasungarria** bideratutako gune bat dago, eta bertan markak eta produktu bereziak biltzen dira, hainbat intolerantzia mota dituzten pertsonentzat eta kolektibo minoritarioen elikaduraren osagarri. Hala, glutenik gabeko produktu espezifikoaren berrehun erreferentzia baino gehiago ditugu (galletak, magdalenak, ogia, pizzarako oinarriak, edariak...), baina osasuna eta elikadura zaintzen duten eta bezeroei zuzendutako beste bioproduktu batzuk ere baditugu, eta ez nahitaez intolerantziaren batekin lotutakoak.

Era berean, gero eta marka gehiagok adierazten dute beren artikuluak "glutenik gabekoak" direla. Jaki horiek saltokietako beste gune batzuetan egon ohi dira; beraz, kontsumitzaile guztiek produktuen osagaiei buruzko ahalik eta informazio gehien izateko helburua betetzen da. Gainera, produktu freskoarekin batera, intolerantziak dituzten pertsonen aukera handiagoa eta hobea dute beren beharretara egokitutako elikagaiak eskuratzeko.



Ekintza solidarioak

629T eman dizkiogu Elikagai Bankuari

Elikagai Bankuari egunero emandako produktuak

Elikagai Bankuekin dugun lankidetzaz berez hartu dugun konpromisoa da, eta hamar urte baino gehiago daramatzagu buru-belarri bi garapen helburu handi betetzeko asmoz.

Alde batetik, elikagaiak eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak laguntzen diegu, eta hori funtsezko erantzukizuna da, gaur egun saihestezina, elikagaien sektorearentzat. Lankidetzaz horren bidez, egunero produktu bolumen handia bideratzen dugu, inolako interesik gabe, eta, hala, Gipuzkoako elikagai emaila nagusietako bat gara -bi planta logistiko daude bertan-, eta urtez urte handitzen ari da, gainera.

Eta, beste alde batetik, konpromiso hori funtsezko jardura da iraunkortasunari eta ekonomia zirkularrari dagokienez. Batetik, eragina du bazterketa arriskuan dauden kolektiboen elikaduraren hobekuntzan, eta, bestetik, eragina du taldeak elikagaiak alferrik galtzeko joera murrizteko duen helburuan. Hori posible da Uvescok hondakinak kudeatzeko daukan sistemari esker. Zeharkako sistema horrek logistika arlotik hasi eta dendako langileenganaino eragiten du, eta aukera

ematen du kontsumo baldintza ezin hobeetan egonagatik salgai ez dauden elikagai produktuak berreskuratzeko, eta Elikagai Bankuetara bideratzeko, egoera zaurgarrian dauden familien oinarritzko beharrak asetze aldera.

2023an, gure Super Amara saltokietan egindako “Último minuto” programak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Elikagai Bankuaren aitorpena jaso du, Elikagaiak Alferrik Galtzearen aurkako Europako Astearen esparruan. Eta hala izan da bi helburu iraunkor betetzen dituen ekimena delako: behar handiena dutenei laguntzea -zehazki, 20.000 familiari baino gehiagori-, eta elikagaiak alferrik galtzeko joera murriztea, iraungipen programa kudeatuta. Hirugarren aldia da Gipuzkoako Foru Aldundiak Uvesco Taldea hautatzen duena; 2022an, programa beragatik jaso zuen aitortza, eta 2019an, produktu galkorra dohaintzetan sartzearagatik -produktu galkorren aprobetxamendua zein dohaintzen bolumena handituta-.



Bestalde, urterik urte, Elikagai Bankuek antolatzen dituzten kanpainetan ere parte hartzen dugu, eremu guztietako gure supermerkatuetan horretarako espazioak lagata, eta, hala, kolektibo horri ematen diogun laguntza indartzen dugu. Horietan, kontsumitzaileek dohaintza ekonomikoak eta produktu ekarpenak egiten dituzte.

Kanpaina hauetan, dendetako espazioa lagatzen dugu, bilketaren logistikaren berri ematen dugu, eta, gainera, bezeroen ekarpenen %7ko ekarpena egiteko konpromisoa dugu.

Guztira, 2023ko maiatza eta azaroko kanpainetan, 590.170 euro eta 423 tona jaso

ditugu, herritarrek emanda, eta horiek Elikagai Bankuen beharrei erantzuteko erabili ditugu.

2023an elikagaien bankuei egindako ekarpenen guztizko batura (eguneroko ekarpenak + kanpainetako ekarpenen %7) 629 tonakoa da.

MAIATZEKO KANPAINA
212.343€ bonuetan + 180.831 kg

%7KO UVESCO DOHAINTZA
14.864€ + 12.658 kg

AZAROKO KANPAINA
377.827€ bonuetan + 242.978 kg

%7KO UVESCO DOHAINTZA
26.447€ + 17.008 kg

Sentsibilizazio eta laguntza lana egiten dugu, eta, hala, handitu egin ditugu elikagai bankuei egiten dizkiegun ekarpenak, partikularrek eta

pertsona anonimoek egiten dituzten dohaintzen bitartez -dohaintza ekonomikoak edo produktu moduan egindakoak-.

EGUNEROKO DOHAINTZAK ELIKAGAIEN BANKUARI + Elikagaien Bilketa Handiaren %7

2020. URTEA
307T

2021. URTEA
390T

2022. URTEA
566T

2023. URTEA
629 tona



Gizarte eta kultura jarduerak

Behar handiena duten kolektiboekiko elkartasuna, emakumearen parte hartzea zein garapena eta herritarren ongizatea hobetzea, ohitura osasungarriak sustatuta

Uvesco Taldearen Gizarte Erantzukizuneko Planak eskatzen du gure inguruko jarduera sozial eta kulturalen garapenarekin konprometituta egotea, eta hori egin ahal izan dugu berrir, pandemia urteetan izandako geldialdiaren ondoren, behar handiena duten

kolektiboekiko elkartasuna, emakumearen parte hartzea zein garapena eta herritarren ongizatea hobetzea bultzatzeko konpromisoa hartu baitugu, betiere ohitura osasungarriak sustatuta.

AECC-Minbiziaren aurkako Elkartarekin egindako elkarlana

2023an egindako jardueren artean, bat da nabarmentzekoa, ongizatean eta osasunean duen eraginagatik: AECC-Minbiziaren aurkako Elkartarekin egindako elkarlana, hainbat kanpainatan lagundu baitiogu. Adibidez, sentsibilizazioan, BM Supermerkatuetako establezimenduen bidez, Azaleko Minbiziaren

aurkako Nazioarteko Eguna eta Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna direla-eta kanpainak eginez, non 3.000 euroko dohaintza egin genion AECCri, kaltetutako familien bizi kalitatea hobetzeko.

Hipertentsioaren Mundu Eguna

Aurten ere, Hipertentsioaren Mundu Egunean parte hartu dugu (maiatzaren 17a), Erizaintza Elkargo jakin batzuekin lankidetzan, eta prebentzio eta informaziorako stand bat izan dugu, lanean dihardugun probintzia guztietan Garapen Iraunkorreko Helburuetako baten ildotik doan konpromisoa da; hots, 3. GIH

Osasunaren eta Ongizatearen alde egitekoaren ildotik. Elikadurarekin eta ohitura osasungarrien bidez hobetu daitekeen gaitz bat prebenitzen laguntzea da asmoa.

Tronbosiaren prebentzioa eta dibulgazioa, Activa'TT elkartearekin

Era berean, prebentzio eta dibulgazio programa bat jarri dugu abian, Activa'TT elkartearekin, tronbosiari buruz kontzientziatzeko. Esparru horretan, dohaintzak erakartzeko kanpaina bat egin zen dendan, bezeroentzat. Gainera, 9.000 euroko dohaintza egin zen, elkartearentzat, gaixotasun horren gaineko prestakuntza, sustapen eta ikerketako programetarako. Hirugarrenik, Taldeko langileei

zuzendutako jardunaldi bat egin zen, eta, bertan, test mediko bat egin zitzaien, tronbosiari aurrea hartzeko diagnostiko eta jarraibideekin.

Gluzemia neurtzeko programa

Azkenik, 2023an, proba pilotu bat abiarazi zen, **Glucovibes** start up-aren eskutik,

kontsumitzaileen osasuna hobetzeko, gluzemia neurtzeko programa baten bidez.

Gabonetako Super Amara Kontzertu Solidarioa

Laguntza solidarioa zabaldu egin zen, eta gure inguruan garrantzitsuak diren beste erakunde eta talde kulturaleri lagundu genien, horrela eragin bikoitza lortuta: kultura eta hezkuntza musikolari eustea, eta egoera ahulean edo gizartean baztertuta bizitzeko arriskuan dauden kolektiboei laguntzea. 2023an,

Gabonetako Super Amara Kontzertu Solidarioa antolatu dugu Los Secretos taldearekin, Donostiako Kursaalean, LAGAElen mesedetan (Adikzioak, abusu arazoak eta adikzio emozionalak pairatzen dituzten emakumeei laguntzeko elkartea).

Beste kultura eta gizarte jarduera batzuk

Kultura eta gizarte arloko beste jarduera askotan parte hartu dugu, eta han izan gara, ekitaldiak egiteko materiala edo produktuak ematen.

Taula honetan agertzen dira Taldeak 2023ko ekitaldian parte hartu duen ekitaldiak eta herriak zerrendatuta:

UVESCOK PARTE HARTU DUEN EKITALDIK ETA HERRIAK 2023

400 KILO HIGIENE PRODUKTUREN DOHAINTZA DONOSTIAKO CARITAS-ENTZAT	DONOSTIA
ASTE NAGUSIKO MARMITAKO ETA PAELLA LEHIAKETA	DONOSTIA
BILBOKO KONPARTSAK ASTE NAGUSIA	BILBO
DONOSTIA FESTAK - ASTE NAGUSIA PUZGARRIAK KATALUNIA PLAZAN	DONOSTIA
DONOSTIA FESTAK - KONTXAKO BANDERA	DONOSTIA
SAN FERMIN JAIK - PUZGARRIA	IRUÑEA
SAN SEBASTIAN DE LOS REYES JAIK	MADRIL
HOYO DE MANZANARES JAIK	MADRIL
LAGUNDUK PUZGARRIK	DONOSTIA
GAUTENAREN ALDEKO MARTXA SOLIDARIOA (GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA)	DONOSTIA
DRAVET SINDROMEAK PROIEKTUA - GERO AXULAR DANTZA TALDEA	DONOSTIA
ELIKAGAIEN BANKUAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA, "EGUBERRI HAUTAN OPARITU ELKARTASUNA" LIBURU SOLIDARIOA SALDUZ	DONOSTIA
"ASPREHREN XIV. JARDUNALDIK" - IKUSMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ERREHABILITAZIOAKO PROFESIOALEN ELKARTEA	DONOSTIA
ASTE NAGUSIKO ARKUME MENESTRA LEHIAKETA/LEGATZA SALTSA BERDEAN LEHIAKETA	DONOSTIA
MUSIKASTE JAIALDIA - EUSKAL MUSIKAREN ASTEA	ERRETERIA



POLTSEN SALMENTA SOLIDARIOA, "JUNEREN HEGOA"-RENTZA	ERRETERIA
IKERTZE-CECADI PROIEKTUA DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAKO IKUS-ENTZUNEZKO GAIKUNTZA IKASTAROAK	DONOSTIA
ERRETINOSI PIGMENTARIOAREN NAZIOARTEKO EGUNA "BEGISARE, RETINOSIS GIPUZKOA"	DONOSTIA
MUSIKA DOKUMENTALEN JAIALDIA - DOCK OF THE BAY	DONOSTIA
GABONETAKO JAIOTZA, GIPUZKOA PLAZAN	DONOSTIA
FENOMENA JAIALDIA	HONDARRIBIA
"CHEFA EGUN BATEZ" - SS GASTRONOMIKA	DONOSTIA
ASPANOGI LASTERKETA SOLIDARIOAN PARTE HARTZEA (GIPUZKOAKO HAUR MINBIZIDUNEN FAMILIEN ELKARTEA)	DONOSTIA
ADEMGÍ - ESKLEROSI ANIZKOITZAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAREKIKO LANKIDETZA	DONOSTIA
LANKIDETZA ASPACE EGUNAREKIN	DONOSTIA



Babesletzak eta kirol klubak

Hainbat klub eta elkarterekin hitzarmenak

Bizimodu osasungarriak ezinbestean behar du bizitza aktiboa izatea eta ariketa fisikoa egitea. Horregatik, kirola sustatzen duten taldeak lehentasunezko lankidetzara ardatza dira Uvesco Taldearentzat, zeinak hitzarmenak dituen inguruko klub eta elkarte ugariarekin. Hitzarmen horiei esker, **indartu egiten dugu bizimodu osasungarriaren balioak sustatzen dituzten, eta, gainera, gizarte kohesioa, errespetua eta berdintasuna sortzen duten jarduerekin dugun konpromisoa**. Gizartearen alderdi

guztietan parte hartu dugu eta, beraz, zuzeneko eragina daukagu bizi kalitatearen hobekuntzan. Horrelaosatzen da herritarren ingurunean eta bizitza sozialean daukagun eragina.

Uvesco Taldeak lankidetzara aktiboan dihardu hainbat kirol klubekin:

Kirol klubak

Real Sociedad de Futbol
Real Union Club de Irun
ACT Eusko Label liga
Hondarribia Arraun Elkartea
Emakumeen BM Bilbo Santutxu
Isuntza Arraun Elkartea
Eibar Kirol Elkartea
Athletic Club
Deportivo Alaves
Bidasoa Eskubaloi Kirol Kluba
Txirrindularitzako Euskadi Fundazioa
Super Amara BAT
Super Amara Bera Bera

Realzale programa

Realaren "Realzale" programan parte hartu dugu, eta 2023an 6.000 bezerok lortu dituzte onurak.

Kirola eta ohitura osasungarriak

Herritarren parte hartzea duten jarduerak, komunitatearen bizi kalitatea eta ohitura osasungarriak hobetzen eragina dutenak

Herritarren parte hartzea duten beste jarduera batzuetan esku hartu dugu eta komunitatearen bizi kalitatea eta ohitura osasungarriak hobetzen eragina dutenak.

Klubekin egindako akordioez gain, 2023an, herritarren parte hartzea duten beste jarduera batzuetan esku hartu dugu eta komunitatearen bizi kalitatea eta ohitura osasungarriak hobetzen eragina dutenak.

Esku hartze hori, oro har, oinezkoen lasterketetan eta tokiko kirol ekitaldietan dago oinarrituta -bereziki, emakumeen edo haurren parte hartzea bultzatzen dutenak edo helburu solidarioak sustatzen dituztenak-.

Jarduera horietan, hornidura poltsak ematen ditugu parte hartzaileentzat (barratxo energetikoak, ura, frutak...), puzgarriak eta helmugako arkuak jartzen ditugu, eta ekitaldietarako materiala ekoizten dugu (elastikoak, biserak...).

2023an, 100.000 anoa poltsa banatu ziren.

2023KO HORNIDURA POLTSAK
100.000

Taula honetan agertzen dira, laburtuta, Taldeak babestutako kirol ekitaldietako batzuk:



UVESCOK BABESTUTAKO KIROL EKITALDIETAKO BATZUK 2023

LILATOIA - EMAKUMEEN MARTXA (5 KM)	DONOSTIA
BIZIPATINAK	DONOSTIA
INES DE PABLO FUTBOL TXAPELKETA	IRUÑEA
EUROPAKO MENDIETAKO TRAILA	POTES (KANTABRIA)
HAURRENTZAKO FUTBOL CAMPUSA	MAJADAHONDA, EIBAR, ATHLETIC CLUB BILBAO
NIGHT MARATOIA	BILBO
"IPARRA VS HEGOA" LASTERKETA	MADRIL
ERDI MARATOIA	DONOSTIA, GASTEIZ
SALTO KLASIKOA	DONOSTIA
SANTURTZI-BILBO LASTERKETA	SANTURTZI
BILBO-ARENAS LASTERKETA	BILBO
ZALEEN DERBIA	MADRIL
EHU LASTERKETA	DONOSTIA
SAN SILVESTRE	HONDARRIBIA, DONOSTIA, LAS ROZAS, TORRELODONES, BILBO GALDAKAO, ERRETERIA
FORTUNA (MAHAI TENISA)	DONOSTIA
LENGOKOAK FUTBOL TALDEA	DONOSTIA
DONOSTIAKO MARATOIA	DONOSTIA
FIBROSI KISTIKOAREN ALDEKO GOLF TXAPELKETA ANDOAIN	
KASKABILOEN LASTERKETA GIZARTE INKLUSIBO BATEN ALDE, ONCE-REKIN	DONOSTIA
BIZIKLETADA, MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA	DONOSTIA
MINBIZIAREN AURKAKO LASTERKETA	DONOSTIA
"BURDUNTZALDEAKO IBILBIDEEN EGUNA"	LASARTE-ORIA
GIMNASIA ERRITMIKOKO IZAR LEKU TXAPELKETA	DONOSTIA





Erakundearen ongizatea

Gure helburua da gure ingurunearen ongizatea elikatzea. Horretarako, ahalegin sistematikoak egiten ditugu, erakundeko ongizate mailak handitzeko, bere adiera guztietan -ongizate fisikoa, mentala, erlazionala eta ekonomikoa-.



Gure profesionalen ongizatean dugun eragina

Erabateko konpromisoa erakundeko ongizatearekin

Ahalegin sistematikoak egiten ditugu, erakundeko ongizate mailak handitzeko, bere adiera guztietan -ongizate fisikoa, mentala, erlazionala eta ekonomikoa-.

Gure helburua da **gure ingurunearen ongizatea elikatzea**.

Horretarako, ahalegin sistematikoak egiten ditugu, erakundeko ongizate mailak handitzeko, bere adiera guztietan -ongizate fisikoa, mentala, erlazionala eta ekonomikoa-.

Pertsonen arloan, baliabide bat baino gehiagoz osatutako sistema bat dugu, bi ardatz nagusirekin lotuta:

Gure helburua da erosketaren esperientziarik onena eskaintzen duten supermerkatuen enpresa izatea. Eta helburu hori lortzeko, funtsezkoa da gure profesionalak ondo egotea.

2 Ardatz nagusi

Profesional onenak

Gure asmoa da bezeroentzat eta, oro har, gizartearentzat gu izatea, ematen diegun arretagatik, produktuaz dugun ezagutzagatik eta teknikoki dugun gaitasunagatik, zerbitzurik onena eskaintzen dugun profesionalak.

Ikuspegi partekatua

Taldeko plantilla osatzen dugun 6.176 kide guztiok asmo bera dugu, erakunde gisa dugun helburua betetzea, alegia.

Horregatik, Uvesco Taldeak erabateko konpromisoa du Erakunde Ongizatearekin, eta horrek, jakina, gure profesionalen ongizatea barne hartzen du, 3. Garapen Iraunkorreko Helburuaren ildotik (pertsonek osasuna eta ongizatea).

Horretarako, ahalegin sistematikoak, planifikatuak eta proaktiboak egiten ditugu, alde batetik prozesuak eta emaitzak hobetzea bilatzen dutenak -bai langileena, bai erakundearena, bai guztiarena-, eta, bestetik, **baliabide eta praktika osasungarriak sustatzen ditugu**, lan giroa hobetzera bideratuak, zereginen mailan, pertsonen artean eta erakunde mailan.

Azken batean, ahalegin horiek lanpostu osasungarriak izatera, gure enplegatuen osasuna optimizatzen eta ongizatea eta konpromisoa sustatzera bideratuta daude.

Horrela, **hainbat praktika ditugu, hori lortzen laguntzeko.**



Lanpostuen egonkortasuna

Enpleguaren egonkortasuna, gure zutabeetako bat

6.176 pertsonako plantilla dugu (2023ko ekitaldiaren amaieran), eta kalitatezko enplegua eskaintzeko konpromisoa dugu, egonkortasuna sustatu, talentua aitortu, lan harremanak hobetu eta plantillarentzat ongizate inguruneak garatzea bilatzen duten politiken bitartez.

Kontratu egonkorren alde egiten dugu, sektoreko batez bestekoaren gaineratik dauden lan baldintzen alde -gauden eremu guztietan-, eta gure kontziliazio neurriak sustatzearen alde. Horrek guztiak laguntzen digu talentua erakartzen eta pertsonak, gaur egun Taldea osatzen dugun pertsona guztiak, zaintzen.

Emakumeen presentzia

Plantillari dagokionez, plantilla osoaren %69 emakumeak dira; beraz, gure enpresa nagusiki femeninoa da. Taldeak duen erronketako bat da erantzukizuneko postuetan emakumeen presentzia handiagoa izatea sustatzen jarraitzea. 2023ko ekitaldia ixtean, **erantzukizuneko lanpostuen %69** (zuzendaritza, gerentzia eta arloko arduradunak, dendako arduradunak eta horien

laguntzaileak) **emakumeek betetzen zituzten**. Dendetako erantzukizun postuak aztertzen baditugu, emakumeek postu horien %72 betetzen zituzten.

ERANTZUKIZUNEKO POSTUETAN
ARI DIREN EMAKUMEAK
%69

EMAKUMEAK ARDURADUN
LAGUNTZAILEEN LANPOSTUETAN
%81

PLANTILLA

6.176

GENEROAREN ARABERA

	Emakumeak	Gizonak
Zuzendaritza	%42	%58
Gerenteak eta arloko arduradunak	%32	%68
Tarteko aginte karguak eta langile teknikoak	%21	%79
Administrazioko langileak	%69	%31
Dendako arduradunak	%57	%43
Dendako arduradunaren laguntzaileak	%81	%19
Dendako langileak	%77	%23
Biltegiko langileak	%3	%97
Plantilla guztira	%69	%31

LAN DENBORAREN ARABERA

Lanaldi partzialeko kontratuen %: **%12**


ADINAREN ARABERA

50 urtera arte: **%62**

50 urtetik gora: **%38**

Ahalegin horien ondorioz, 2023ko ekitaldia ixtean, arduradun laguntzaileen postuen %81 emakumeek betetzen zituzten, eta, etorkizunean, emakume horiek dendako arduradunen postuak eskuratu ahal izango dituzte.

Hurrengo grafikoak erakusten du emakumeen ehunekoak, dendako arduradunaren posizioan, gora egin duela azken urteetan, kategoria osoaren %57 izan arte. Ikus daiteke, 2019an, gizonen eta emakumeen proportzioa berdindu zela, eta, ordutik, postu horietan gehiengoa direla.



Dendako arduradun diren emakumeen % vs gizonen %, bilakaera

G: Gizona / E: Emakumea

Lana eta bizitza pribatua uztartzea

Lana eta bizitza pribatua kontziliatzearen alde egitea eta berdintasuna sustatzea

1 Lana eta bizitza pribatua kontziliatzearen alde egitea eta berdintasuna sustatzea bultzatzen duten jardunak.

2 Erantzukizun Plan Estrategikoaren barruan, eta Erakundeko Ongizatea lortzea ahalbidetuko diguten neurri eta praktika osasungarriak sustatzeko dugun konpromisoaren barruan, funtsezkoak dira lanaren eta bizitza pribatuaren arteko kontziliazioa hobetu eta bultzatuko duten eta pertsonen berdintasuna sustatuko duten baliabideak.

Kontziliazioaren alde egiten dugu, plantillaren ongizate sozialaren funtsezko puntua den heinean. Bizitza osoa izateak -arloan pertsonalean zein profesionalean- eta bizitzaren bi alderdi horiek uztartu ahal izateak erakundearekiko gogobetetasuna hobetzen eta plantillaren ongizate mailak handitzen laguntzen dute.

Urteak daramatzagu kontziliazioarekin lotura duten lan baldintzak hobetzeko ahaleginetan. Aplikatzen ditugun neurrien artean bereizi egiten dira zentraletako langileentzat direnak, dendetako langileentzat direnak eta langile guztientzat direnak.

Zentraleko langileentzako neurriak.

Dendetako langileentzako neurriak.

Langile guztientzako neurriak.



Zentraleko langileentzako neurriak

Sartzeko eta irteteko ordutegi malgua.

Lanaldi jarraitua urte osoko ostiraletan eta udako hilabeteetan (uztailean eta abuztuan).

Mugarik ez, oporraldiak aukeratzean.

Lanpostuaren arabera, telelan partziala egiteko aukera.

Langile guztientzako neurriak

Denboraren kudeaketari buruzko prestakuntza.

Bizikideentzako lizentzien homologazioa.

Desgaitasuna, mendekotasuna edo aniztasun funtzionala duten seme-alabei mediku edo hezkuntza kontuetara laguntzeko lizentzia.

Seme-alabei eta mendeko adinekoei medikura laguntzeko orduak luzatzea.

Dendetako langileentzako neurriak

Lanaldia murrizteko ereduak, murriztutako orduak egunetan, asteetan edo hilabeteetan metatuta hartzeko aukerarekin.

Santuko, udako eta egokitzapen aldietako eszedentziak.

Oporrez gain, atseden egun gehigarriak.

Ospitalean dauden seme-alabak zaintzeko lizentziak.

Dendan kokatzeko lehentasuna, dendaren eta etxearen arteko hurbiltasunaren arabera.

Lana eta
bizitza
pribatua
kontziliaziorako
neurriak

Gainera, 2023ko azarotik, deskonexio digitalerako protokolo bat dugu. Neurri horrek deskonexio digitalerako eskubidea ez ezik jardunbide egokien eta gomendioen zerrenda zehatza ere jasotzen du.

Protokolo horren bidez, pertsona guztiei atseden bermatu nahi zaie, eta deskonexio digitalerako eskubidea aitortu, behin lanaldia

amaituta. Deskonexio digitalerako jarraibideak eta gomendioak Taldearen beste politika batzuekin lerrokatzen dira -horiek guztiak plantillaren osasuna, ongizatea eta garapen profesionala hobetzeko helburuarekin-.

Aniztasuna eta desgaitasuna duten pertsonak

Uvesco Taldean, beti egiten dugu desgaitasuna duten pertsonak eta ahultasun egoeran daudenak gizarteratzearen alde, enpatia, ulermen eta laguntza inguruneak sustatuz.

Desgaitasuna duten pertsonen integrazioa erakunde eta fundazio espezializatu bidez kudeatzen da, eta horiek kolektibo hori gure supermerkatuetan eta zentraletan sartzen eta integratzen laguntzen dute.

Adibidez, Gipuzkoan, Gureakekin lan bat egin da, eta bertan enplegu arduradunek lanpostuak aztertu dituzte, ikasgelan ikasleen prestakuntza hobeto definitu ahal izateko. Ezagutza horrekin, hainbat posizio bete ditzaketen pertsonak proposatzen dituzte -batez ere, salako profesionalak-.

Hasieran, praktiketako kontratu baten bidez sartzen dira, fundazio horiek gizarteratzeko dituzten programen esparruan. Bilakaera egokia bada, lan kontratu bat egiten zaie.

Ekitaldiaren itxieran, desgaitasuna duten enplegatuen kopurua 66 pertsonakoa zen.

Desgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko filosofia hori langile guztiei helarazteko eta horretaz sentsibilizatzeko, 2023ko bigarren seihilekoan, komunikaziorako eta prestakuntzarako plan espezifiko bat garatu dugu, non hauek sartu diren:

Komunikaziorako eta prestakuntzarako plan espezifikoa

Prestakuntza pilulak

Albisteak, posterrak dendan

Adituen hitzaldiak

Online prestakuntza, desgaitasunari eta tratu egokiari buruzkoa

Segurtasuna, osasuna eta ongizatea

Prebentzioaren kudeaketa eta prebentzioko plan orokorra

Plantillaren segurtasuna eta osasuna lehentasuna da Taldearentzat. Prebentzioa kudeatzeko sistema bat dugu, prebentzioaren arloko politika, helburuak eta jomugak aplikatzean oinarritua eta bere baitan erakunde osoa hartzen duena. Segurtasun eta osasuneko baldintzen etengabeko hobekuntza sustatzen duten printzipioen eta konpromisoen adierazpena da -hasiera batean, enpresako zuzendaritzak hartutakoak-. Sistema horretan, prebentzioaren gidalerro eta helburu orokorrak adierazten dira, sail guztietan integratzea,

indarrean dagoen araudia betetzea eta osasuna sustatzea lortzeko.

Funtsezko betekizunak, baliabideak eta tresnak laneko arriskuen prebentzioa (LAP) kudeatzeko plan orokor batean definituta daude.

Dokumentu hori barneko araudiaren parte da, eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko gainerako barneko prozedurak biltzen ditu. 2023ko ekitaldian, enpresa guztientzako prebentzio plan orokorrak eguneratu dira, indarrean dauden araudi berrietara egokituta.



Prebentzioaren antolaketa ereduaren osagarri gisa, eta prebentzioaren jarduera enpresaren barruan eta produkzio prozesuetan integratzen

laguntzeko, laneko segurtasun eta osasuneko koordinatzaile bat definitu da.

Segurtasunerako eta osasunerako arriskuen ebaluazioak

Plantillaren osasunerako eta segurtasunerako arriskuen ebaluazioak ditugu, Taldearen kokaleku guztietan, prebentzio ekintzen definizioa eta jarraipena barnean hartuta.

Ekintza horiek guztiak funtsezkoak dira prebentzioa kudeatzeko, eta aldi-aldi berrikusi eta eguneratzen dira.

Osasunaren eta ongizatearen zaintza eta behaketa

Osasunaren zaintzarekin lotutako jarduera guztien azken helburua da Uvesco Taldeak erakunde osasungarri izaten jarraitzea, plantillaren ongizate mailak handitzeko.

2023an, langileen zaintzarekin, osasunaren zaintzarekin eta ongizatearekin lotutako jarduera hauek nabarmendu dira -prebentzio taldeak kudeatuak-:

SPAekin, plantillari osasunaren zaintza bermatzen diogu, bai hasieran, bai aldizka, eta lanpostuz aldatzen direnei, haurdun dauden langileei edo iraupen luzeko baja baten ondoren lanean hasten direnei ere bermatzen diegu zaintza hori (lanpostuari berez dagozkion arriskuen arabera).

LANGILEEN ZAINZAREKIN, OSASUNAREN ZAINZAREKIN ETA ONGIZATEAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

3.032 osasun azterketa espezifiko egin dira urtean.

Gripearen aurkako doako txertaketa kanpaina, langile guztiei eskainia.

Osasun eta dibulgazio kanpainak, ohitura osasungarriak sustatzeko.

Arriskuen ebaluazioen azterketa eta osasunaren zaintzan aplikatu beharreko protokolo medikoak.

Haurdunaldiko edo edoskitzaroko arriskuengatik prestazioak jasotzea eta aztertzea.

Tresna berri bat garatzea eta ezartzea, azterketa medikoak *online* eskatzeko.

Bereziki sentikorrak diren langileen lanpostuen ebaluazioa, balorazioa eta egokitzapena, lanpostuen egokitzapena eginda, beharrezkoa denean.

Tronbosia prebenitzeko ekintza espezifikoak.

PSA zerbitzua, analisiarekin, 45 urtetik gorako gizonentzat.

Ginekologia eta urologiako zerbitzua.

Doako azterketak, glaukomaren prebentziorako.

Uvesco ON BIENESTAR plataforma, medikuntza orokorreko profesionalen eta espezialisten *online* kontsultekin, egun osoan zehar.

Osasunarekin eta ongizatearekin lotuta Taldeak dituen ekimenak: 2023an, **Glucovibese**kin lanean jarraitu da. 2022an, erakunde aitzindaria izan ginen, parte hartzaileei GPS metaboliko integratu bat ezartzen, denbora errealean (hamalau egunez) haien nutrizioa, jarduera, atsedena eta glukosa mailak monitorizatzeko.

Mediku zerbitzuen txartela, pertsona guztientzako eta zuzeneko senideentzako deskontuekin, guztira 11 mediku espezialitatetan.

Kirol praktika sustatzea plantillan, hainbat kirol ekitalditan parte hartzera bultzatuta (adibidez, enpresen arteko lasterketetan).

Ebaluazio psikosozialak egitea.

Familia kontziliazioa hobetzeko neurriak.

“Liderando para el bienestar” masterra, lantaldeak ardurapean dituzten langileentzat.

Pertsonen arteko gatazkak konpontzeko prozedura.

Droga mendekotasunak prebenitzeko prozedura.

Gainera, **ergonomia** hobetzeko hainbat jarduera egin ditugu 2023an:

ERGONOMIA HOBETZEKO JARDUERAK

Arriskuei eta neurri ergonomikoei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea

Kargak eskuz manipulatzeko jarraibideak behar bezala aplikatzearen garrantziaz kontzientziatzeko. Ergonomiako prestakuntza presentzialak egin dira dendako eta zentraletako langile taldeentzat, nahasmendu muskuloeskeletikoak prebenitzeko online prestakuntzak eta ergonomia aktiboari buruzko prestakuntzak Unialco Irun eta Alpa Araso plataformako biltegiko langileentzat.

Ergonomiako prebentzio jarduerak indartzea

2023an, ebaluazio ergonomikoak egin ditugu, lanpostu guztietarako.

Nahasmendu muskuloeskeletikoen prebentzioa

Aurten berotze eta luzatze ariketen errutinak landu dira, kolektibo espezifikoentzat, lanaldiaren hasieran.

Bizkarreko eta besoko eskolako prestakuntza

Doako zerbitzu hau eskaintzen jarraitzen dugu, muskuluetako gainkargak saihesteko eta lepoko, bizkarreko eta besoko balizko lesioak prebenitzeko.

Komunikazio kanpainak

Adibidez, lanaldiaren hasieran berotze eta luzatze ariketen errutinak egitearen garrantziaz, kargak modu egokian manipulatzearaz... Kanpaina horiek informazio taulan jartzen dira, langile guztiek ikusi ahal izateko.

Masaje prebentiboak

Taldeko langileek masaje prebentiboen zentroak izaten jarraitzen dute, prezio bereziekin, probintzia guztietan, nahasmendu muskuloeskeletikoak prebenitzeko.

Lanpostua egokitzea hori behar duten langileei

Lanpostua egokitzea, posturak txandakatzea, lana antolatzea edo beste neurri batzuk, kargak manipulatzearan arrisku ergonomikoa gutxitzen dutenak eta erosotasuna hobetzen dutenak.

Aiztoak mantentzea

Aiztoak mantentzeko zerbitzu bat kontratatzen jarraitu da, ebakitzeko tresna guztiak behar bezala zorroztea ziurtatzen duena, urdaitegi-harategiko eta arrandegiko ataletan.



Informazioa eta komunikazioa

Informazio eta komunikazio egokia bultzatzen

Informazio eta komunikazio egokia bultzatzen dugu, bai erakundetik pertsonengana (aldizkariak, buletinak, etab.), bai alderantziz, pertsonengandik erakundera (iradokizunen postontziak, pertsonen ordezkariak...).

Alde batetik, gure liderren bidez (taldeak kudeatzen dituzten pertsonak) komunikazio eta informazio zeregin bat garatzen dugu, ongizatea sustatzearen onurak ulertzen laguntzeko, erakunde mailan, euren buruarentzat, beren taldeentzat eta beren emaitzentzat, eta, horrenbestez, erakundearen emaitzentzat.

Bestalde, lidergoa gure komunikazio ardatzetako bat den arren, ez da bakarra. Horregatik, norbanakoaren erantzukizuna ere eskatzen dugu. Eta hori egiteko, beharrezkoa

da informazioa eta tresnak ematea, erakundeko gainerako profesionalei ongizatea eta dauzkan onurak ulertzen laguntzeko. Hauek dira Uvescon ditugun tresnak:

Komunikazio tresnak

Uvesconnect

Uvesco Info

Ardurdunen bilera

Aldizka informazio materiala dendetara bidaltzea

Iradokizunen postontzia

Konpromiso galdetegiak

UVESCO TALDEAREN KOMUNIKAZIO TRESNAK

Uvesconnect

Albisteetara, informazio korporatibora, iraupen laburreko hainbat gairen prestakuntzetara, langilearen klubera (CLUVESCO) eta taldeko langile gisa dituzten beste abantaila batzuetara sartzeko *online* tresna.

Uvesco Info

Argitalpen inprimatu eta pertsonalizatua, aldizkari moduan, Uvesco Taldeko langileei etxera iristen zaiena, langileei erakundeko lan arlo eta gaurkotasunezko gai nagusiak ezagutarazteko.

Ardurdunen bilera

Dendako arduradunek dendako lantaldeekin hilero egindako bilerak, emaitzak bateratzeko.

Aldizka informazio materiala dendetara bidaltzea

Informazio jakin batzuk sustatzeko (posterrak).

Iradokizunen postontzia

Barneko komunikaziorako kanala, kontsultak eta iradokizunak egiteko.

Konpromiso galdetegiak

Arrisku psikosozialen gaineko inkestez gain, galdetegi hauek ere egiten dira, zeinak plantillak erakundearekin duen gogobetetzearekin lotuta baitaude, besteak beste. Neurketa hori eginda, giza baliabideen arloak neurtu eta monitorizatu dezake aplikatutako neurriek (esaterako, barne promozioarekin, aukera berdintasunarekin, kide izateaz harro egotearekin eta ongizatearekin lotutakoak) izan duten inpaktua.



Trebetasunen prestakuntza eta garapena

Konpetentziak eta trebetasunak garatzeko praktikak

Lanposturako behar diren konpetentziak eta trebetasunak garatzeko aukera eskaintzen duten praktikak.

Prestakuntzaren, garapenaren eta barneko sustapenaren ardatza da erakundearen misioa betetzeko funtsezko baliabideetako bat, eta misioa hau da: "Uvesco Taldeak profesionalik hoberenak izatea eragitea, euren lan jardunaren bitartez erosketa esperientziarik onena lortzen duten profesionalak izatea eragitea, ikuspegi partekatu bat eraikita, erakundearen asmoarekin lerrokatuta". Horretarako, erakundearen ongizatean jartzen da fokua, eta barneko gaitasunei estimazioz begiratzen zaie, proposatutako erronka lortzeko. Prestakuntza eta garapena funtsezko puntuak dira, plantillaren ongizate maila handiagoak bultzatzeko orduan; izan ere, horien bidez, lana modu optimoan garatzeko beharrezko baliabideak lortzen dira. Erakundeari ahalbidetzen diote bere erronkei aurre egiteko prest egotea, etengabeko egokitzapen batetik abiatuta.

Alde batetik, prestakuntza eta garapen arloak bilatzen du pertsonak baliabideak eskuragarri izatea, beren lana modu arinean eta trebetaunez egiten jakiteko moduan gauzatuta,

hasieratik. Eta, bestetik, garapen profesionalerako aukerak eskaintzen saiatzen da, eta erakundea behar eta erronka berrietara egokitzen eta eskaera berriei aurrea hartzen. Prestakuntza langileen bizitza osoan zehar presente dago enpresan, pertsonen garapenean laguntzeko bitartekoa baita, eta, beraz, bezeroek hautematen duten erosketa esperientzian ere laguntzen dugu.

Uvesco Taldeak bere langile berrien zein jada dituen langile finkoen ezagutzak hobetzeko eta eguneratzeko dituen prestakuntza planetan egiten duen ahalegina urtez urte egiten dun inbertsioan islatzen da. **2023an, 5.231.458€ inbertitu du guztira, eta pertsonako batez besteko gastua 903,67€-koa izan da.**

INBERTSIOA PRESTAKUNTZAN

5,2M€

BATEZ BESTEKO INBERTSIOA
PRESTAKUNTZAN, PERTSONAKO

903,67€



Integrazio kultura

Langile berrientzako integrazioa eta egokitzea

INTEGRAZIO KULTURA UVESCO TALDEA

Sarrerako prestakuntza

Lehen lan egunean, sarrera guztiek harrera aplikazioa egiten dute, bete beharreko lanpostura egokituta (gaur egun, 21 bertsio baino gehiago ditugu). Ikaskuntza horretan, legez nahitaezko prestakuntzak eta prestakuntza estrategikoak egiten dira. Era berean, Taldearen filosofia transmititzen da, eta, besteak beste, ingurumenari buruzko prestakuntza sartzen da.

Aldaketarako prestakuntza

Bere helburu nagusia da barneko langileak profesionalki gaitzea, gaur egun garatzen dituen bestelako lanpostuak garatzeko prestakuntza emanez. Horrela, supermerkatuetan freskoen ataleko postuetan sortzen diren beharrak estali ahal izango dituzte.

Eskolako prestakuntza

Kolektibo ahulei laguntzeko gure gain hartu dugun arduraren barruan, langabeei zuzendutako prestakuntza programa bat dugu. Prestakuntza horren bidez, supermerkatuko lanbideetan prestatzen dira -bereziki, freskoen ataleko lanbideetan-. Ikaskuntza horrekin errazago dute postu horien eskaera handia duen lan merkatu batean sartu ahal izatea.

Hainbat gobernu autonomikorekin lankidetzan aritzen gara, eta prestakuntza talde bakoitzeko ikasleen %50 kontratatzeko konpromisoa hartzen dugu. Normalean, prestatutako langileen %80 sartu ohi dira. 2023an, prestakuntza ekintza horietan (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan), 54 pertsonak parte hartu dute.

Etengabeko prestakuntza

Ikaskuntza hori Taldeko profesionalentzat da, eta bere helburua da haien gaitasunak eta trebetasunak garatzen jarraitzea, erakundearen alderdi estrategikoak ezagutzea edo bere taldeek edo arduradunek identifikatutako hobekuntza arlo posibleak betetzea. Etengabeko prestakuntza hiru formatutan egiten da: *online*, gela birtuala edo presentziala. 2023an, 25.522,10 ordu baino gehiago eman dira ikaskuntza tipologia horretan, eta 80 prestakuntza desberdin baino gehiago eman dira.



Prestakuntza honela sailka dezakegu:

Legez nahitaezkoa

Uvesco Taldeak bermatzen du bere profesional guztiek legez ezarritako prestakuntza jasotzen dutela, gutxienez lau urtean behin.

- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Elikagaien manipulazioa.
- Compliance.
- Berdintasuna.
- Orgak eta plataforma jasotzaileak maneiatzea.
- GPZ (Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria).

Prestakuntza estrategikoak

Supermerkatuko langileentzat: Prestakuntza presentzialak.

- Bikaina I: Jokabide ukaezinak (bezeroei arreta egitea).
- Bikaina II: Elikadura osasungarria (nutrizio aholkularitza eta produktuaren ezagutza).
- Bikaina III: Erosten laguntzen dizut (dendako aholkularitza).

Lidergoko prestakuntza

Prestakuntza presentzial horiek beharrezko trebetasunak eta gaitasunak ematen dizkiete liderrei, ongizateko inguruneak sortzeko, beren lantaldeen barruan:

Ongizaterako lidergoan: programa bat, non lantaldeko arduradunek ongizate mentalarekin, ongizate fisikoarekin, ongizate espiritualarekin, ongizate sozialarekin eta inguruneke ongizatearekin lotutako ezagutzetan sakontzen duten.

Uvesco ereduko zuzendaritza trebetasunei buruzko masterra (300 plana): master bat, non liderraren oinarritzko hamar gaitasunetan sakontzen den. Programa enblematikoa da, Taldearen lidergo ereduaren eta aldaketa kulturalaren alde egindako ekarpenagatik.

Eguneratze eta hobekuntzako saileko prestakuntza

Urtero, sail bakoitzaren beharrak jasotzen dira. Behar horietako batzuk dira konpetentziak eta trebetasunak garatzea, ezagutza berriak eskuratzea edo daudenak hobetzea.

Online prestakuntza

Prestakuntzarako dugun *online* plataforman, profesional bakoitzak bere derrigorrezko prestakuntzak, prestakuntza estrategikoak eta erakundeak bere profilerako iradokitakoak ditu eskuragarri, bai eta 90 ikastaro baino gehiagoko katalogo bat ere, zein eremutan garatu aukeratzeko.

Karreraren garapena. Harrobi Plana

Karrera garatzeko eta sustatzeko aukera eskaintzen duten praktikak

Barne sustapeneko programa dugu, **Harrobi Plana** izenekoa. Plan horren helburua da posizio estrategikoak beteko direla ziurtatzea, epe ertain eta luzera, erakundearen barruan garapen profesionalerako aukerak emanez parte hartzaileei. Programa honetara aurkeztu ahal izateko, onarpen baldintza batzuk bete behar dira.

2023an, erakundeko 800 pertsonak baino gehiagok erantzukizun handiagoko funtzioak hartu dituzte, eta, beste urte batez, gure helburua betetzera iritsi gara, hau da, erakunde barruko erantzukizuneko posizioen %90 barneko profesionalekin betetzea.



Bizi estilo osasungarria sustatzea

Langileen ohitura osasungarrien garapena sustatzea

Langileek ohitura osasungarriak izan ditzaten sustatzen duten jardunak (gorputz jarrera zaintzea, elikadura ohiturak, jarduera fisikoa...).

Betiere gure profesionalen ongizatea elikatzera bideratuta, Uvesco Taldeak helburu hori lortzen laguntzen diguten programak ezarri ditu azken hilabeteetan:



HELBURU HAU LORTZEN LAGUNTZEN DIGUTEN PROGRAMAK

Uvesco On Bienestar

Uvesco Taldeak doako osasun plataforma bat jarri du bere profesional guztien eskura, hamar espezialitate medikotan sartzeko aukera ematen duena, hiru minutu baino gutxiago itxaronda.

Plataforma horren bidez, langileak zerbitzu horretara sartzen dira, bideo kontsulten bidez, eta errezeta elektronikoak jaso ditzakete, behar izanez gero.

Uvesco Proiektu Solidarioa

Uvesco Taldeak Uvesco Proiektu Solidarioaren lehen edizioa jarri du abian. Ekimen horren bidez, gure konpromiso solidarioa bultzatzen eta indartzen da. Plantillak berak aurkeztu eta aukeratzen ditu lagundu beharreko proiektuak, eta dohaintzak egiten ditu, enplegatuen programaren bidez.

Lehen edizio honetan, proiektu onuraduna Bizkaiko BM Supermerkatuen bidez iritsi da. Bildutako funtsak "Mi Princesa RETT" fundaziora bideratuko dira, espazio multisentsorialak sortzeko, RETT sindromea (nahasmendu genetiko neurologiko eta garapen nahasmendu ezohikoa) duten haurren garapen sentorial eta kognitiboa errazteko. Helburu hori indartzeko, Uvesco Taldeak dohaintza estra bat eman du, gure profesionalek emandako euro bakoitzeko.

Gaixotasun kardiobaskularren informazioa eta detekzioa

Activa'TT elkartearekin lankidetzan, 2023an, patologia horiei buruzko bi hitzaldi egin dira, langile guztiei irekita. Gainera, jardunaldi batean, zainetako gutxiegitasunaren diagnostiko goiztiarra egin ahal izan zuten Uvescoko langileek.

Uvesco Benefiten Kluba

Erosketa kluba, Uvescoko langile guztientzat soilik eskuragarri, eta bertan aurrezteko ehunka promozio aurki daitezke. Deskontuak eguneroko erosketetan aplikatzen dira, hala nola elikaduran, gasolinan, modan, etxeko horniduretan edo bidaietan (beste kategoria batzuen artean).



Bestalde, 2023an zehar, hainbat sari jaso ditugu, Taldeak ongizatearen, kontziliazioaren eta familiaren, edo prestakuntzaren eta

garapenaren arloetan egindako lana aintzatesten dutenak.

UVESCO TALDEAREN LANA AITORTZEN DUTEN SARIAK

MEES Ongizate Emozionalaren Saria

Saria, zeinaren bidez gure herrialdeko ongizate korporatiboko praktika onenak aitortzen diren, "Mi Empresa es Saludable" erakundeak emanda.

Uvesco Taldea izan da irabazlea MEES ("Mi Empresa es Saludable") erakundeak banatzen dituen sarien zortzigarren edizioan, Ongizate Emozionala kategorian, "Nos cuidamos" kanpainarekin.

Uvesco Taldeak bere profesionalen ongizaterako egindako lana baloratu da, elikagaien banaketarena bezalako sektore konplexu batean egindako lan garrantzitsua azpimarratuta.

Euskadiko Familia Saria

Saria, non Uvesco Taldeak azken urteetan kontziliazio arloan egindako ahalegina baloratzen den, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Kontzilia30 programan parte hartu izana ere, AFAE GKEak banatuta.

Hirugarren saria Prestakuntza eta Garapenaren kategorian


Saria, non arlo horrek Taldean duen garrantzia aitortzen den, Retailaren Espainiako Elkarteak emanda.

Mi
EMPRESA ES
SALUDABLE



Elikadura osasungarria eta kalitatekoa

Gure oinarrietako bat tokiko produktuarekiko konpromisoa da, eta sendo lotuta dago gure gizarte eta lurralderako balio positiboak dituen kalitatezko produktu bat eskaintzeko dugun bokazioarekin.



Konpromisoa dugu tokiko eta sasoiko produktuekin

Iraunkorragoak, 0Km-koak garelako

Gure oinarrietako bat tokiko produktuarekiko konpromisoa da, eta sendo lotuta dago gure gizarte eta lurralderako balio positiboak dituen kalitatezko produktu bat eskaintzeko dugun bokazioarekin.

Tokiko produktuak eskaintzeko dugun helburuak gure hornitzaileekin lankidetzaz, koordinazio eta harreman estua izatera garamatza, produktuaren eta elaborazio lanaren atzean dauden historia eta pertsonen gaineko

ezagutza sakona izateko. Hornitzaileengandik oso hurbil gaude, gure balio katean funtsezkoak baitira, eta horrek **lehen sektorearen eta landa eremuaren errealitate konplexua ezagutzeko aukera ematen digu, baita sektorearen kontserbazioa eta garapena errazteko laguntza eta tresnak emateko aukera ere.**



Gure sorburutik bertatik datorkigu tokiko produktuarekin dugun konpromisoa, eta hainbat eragin dakartza, Nazio Batuen Garapen

Iraunkorreko Helburuen eta Europako Batzordearen "Baserritik Mahaira" Estrategiaren ildoan (Itun Berdea).

Eskualdeari balioa eta aberastasuna ematen laguntzea

Tokiko nekazariak eta ekoizleak beren lurraldeko kulturaren, nortasunaren eta tradizioaren benetako interpretazio lana egiten dute. Balio horiek eskualde bakoitzaren berezitasuna, (bio)dibertsitatea eta aberastasuna bermatzen dute, eta gaur egun horiek kontserbatzea ezinbestekoa da

etengabe globalizatzen ari den mundu honetan. Uvescon, balio hori emateko, ekoizlea eta haren produktua lehen lerroan jartzen dira, ikusgarritasuna emanez eta saltokiko eta komunikazio kanaletako atalen protagonista bihurtuz.

Ingurumena babestea eta eraginak murriztea


Dendari emandako zuzeneko zerbitzua Uvesco supermerkatuen eredu bereizgarria da, eta iraunkortasuna sustatzen du, banaketa formatu iraunkorra bultzatzen duelako, garraioaren, enbalajeen eta hotz sistemen eragin

negatiboak murrizten dituelako, ingurumena hobeto errespetatzen duten ekoizpen sistemak sustatzen dituelako eta garaiko produktuen alde egiten duelako.

Lehen sektorearen eta landa ingurunearen kontserbazioa sustatzea

Tokiko kontsumoak berebiziko garrantzia duen sektore bat babesten du, izan ere, elikagaiak bermatzen ditu, paisaia zaintzen du, lurren erabilera eta emankortasuna indartzen du, eta gure klimara eta kultura gastronomikora egokitutako barietateak berreskuratzen ditu.

Uvescok hornitzaile zuzen eta iraunkorrekiko harremanen alde egiten du, harreman arin eta produktiboen bidez, bolumenak produkziara egokituz eta sektorearen garapen eta berrikuntzara bideratutako proiektuak babestuz.





Kalitatezko elikagai osasungarriak eskaintzea

Tokiko eta garaiko elikagaiak heltze punturik onenean jasotzen dira, freskotasuna eta zaporea bermatzeko, eta mantenugai kantitate handiagoa ziurtatuz. Gainera, produktuaren trazabilitate handiagoa eta hobea izateko aukera ematen du, kalitatea ziurtatzeko.

Horrez gain, Uvescok parte hartzen du inguruko nekazaritzako elikagaien sektoreko eragileek bultzatzen dituzten **gizarte eta lan arloko berrikuntza eta integrazio proiektuetan** (esate baterako, Bizkaiko Itsaslur Fundazioan). Sektorean eta proiektu iraunkorretan erreferentziazko dinamizatzailer, laguntzaile eta erraztaile bihurtzen du horrek guztiak.

Tokiko produktuarekiko konpromisoak produktu freskoari eragiten dio -horren erakusgarri da garrantzi berezia duela dendetan-, baina **elikaduraren beste esparru batzuetara ere zabaltzen da. Esate baterako, aliantzak egiten dira tokiko beste produktu batzuen hornitzaileekin ere: eztia, sagardoa, gaztak, jogurtak, hestebeteak, txakolina, garagardoak eta zukuak...** Tokiko esnekiek eta gaztek, adibidez, presentzia handia dute gure

jarduera eremu guztietan: artzain gaztak eta artisau motakoak ditu, kanpainan eta zuzeneko zerbitzuan, eta, horri esker, dendatik gertu dauden jatorri ugaritako gaztak eskaintzen dira, kalitate handikoak denak.

Aliantzak lehen sektorearekin

Tokiko hornitzaileei egindako erosketak

Lehen sektoreari laguntzeko erantzukizuna dugu, eta baita elikadura osasungarriaren balioak sustatzekoa ere.

Lehen sektoreari laguntzeko erantzukizuna dugu, eta baita elikadura osasungarriaren balioak sustatzekoa ere. Hori dela eta, urteetan, **hainbat aliantza eta akordio** inatu ditugu saltokiak ditugun ingurueta ekoizleekin, horiek zuzeneko eragina baitute sektore horretako garapen ekonomikoan.. Batetik, **nekazaritza eta abeltzaintza sektorearekin** egin ditugu akordioak, gure dendetatik hurbil dauden produktuak salerosteko, eta, bestetik, **Kantauriko arrantza kofradiekin**, egunero lonjetako arraina merkaturatzeko.





Zuzeneko akordioak ditugu laurhun nekazari, abeltzain eta egile txiki baino gehiagorekin, zeinek inguruko saltokietan banatzen baitituzte beren produktuak -batzuek egunero eta modu zuzenean-. Lankidetzak estu horri esker, Km0-ko kalitatezko produktuak,

denik eta freskotasunik handiena eta zerbitzuaren berehalakotasuna bermatzen dizkiogu bezeroari.

LEHEN SEKTOREAREKIN ZUZENeko AKORDIOAK

Ondarroako arrantzaleen kofradia

Amuko legatza merkaturatzeko.

Lasarbi abeltzainen elkarteak

Ardi latxaren bildotsa merkaturatzeko.

Euskadiko untxi ekoizleen federazioa

Euskal Herriko tokiko untxiaren haragiaren kontsumoa sustatu eta bultzatzeko, BM Bertako Untxia zigiluaren pean.

Hondarribiko Done Pedro marinelen kofradia

Amuko legatza eta merlenka eskusiban merkaturatzeko.

Idiazabal II, erronkari II eta Idiazabalgo Mendiko Gazta

Gaztaren lehen sektoreari laguntzeko, Jatorri Izendapeneko hornidura sustatzeko, kalitate bermatua eskainiz.

Santoñako eta Laredoko arrantzaleen kofradia

Kantauriko eta kanpainako arrainak salerosteko.

Barazki freskoen zerbitzua Madril

Akordioa egin dugu Madrilgo hornitzaileekin, sasoiko barazki freskoen zuzeneko zerbitzua emateko, hango establezimendu gehienetan.

Halaber, Kalitate Marken, Jatorri Izendapenen eta Adierazpen Geografiko Babestuen aldeko apustuarekin, kalitatearen inguruko ziurtagiri berezi bat dutenak babesten eta laguntzen ditu, nekazaritzako elikagai horien kalitatea eta ezaugarriak, funtsean edo erabat, ingurune geografikoaren menpe baitaude. Hala, bakoitzaren faktore natural eta humanoekin, ekoizpena, eraldaketa eta elaborazioa jatorrizko ingurune geografikoan egiten dira.

akordioak ditugu Kantabriako 14 artisau gaztandegirekin, tokiko 50 gazta baino gehiago banatzeko.

Azkenik, lehen sektoreari egiten diogun ekarpenean dugun konpromisoa agerikoa da, hainbat ezaugarriengatik: **merkaturatzen dugun legatzaren %100 Kantaurikoa da, eta txahalaren %100, tokikoa -gure jarduera eremu guztietako ustiategi txikiko 350 abeltzainekin ditugun akordioei esker-. Eta**



Bestalde, Madrilgo saltoki gehienetan -Taldeak beste lurralde batzuetan duen joerarekin bat-, sasoiko barazki freskoen zuzeneko zerbitzuaren eredua ezarri da. Madrilgo jatorria duen aukera sorta hori handitu egin da Madrilgo patatarekin.

Horretarako, ezinbestekoa izan da Madrilgo landa garapenaz arduratzen diren erakunde eta organismo publiko eta pribatuekin harremana izatea. Hala, Madrilgo Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Sektorearen Garapena eta Jasangarritasuna Sustatzeko Jarduera Protokoloari atxikita formalizatu da.

Horrenbestez, indartze ekintzak garatu eta lagundu ditugu, tokiko hornitzaileei laguntza emateko, gure filosofiaren ildotik. Hauek izan dira neurri horietako batzuk:



HARREMANA INDARTZEA, PRODUKTU SOBERAKINEI IRTEERA EMATEKO

Produktuen aukera zabalduz, zerbitzua denda gehiagotara irekiz eta eskaintzak sustatuz.

TOKIKO HORNITZAILE ETA EGILE BERRIEKIN HARREMANAK EZARTZEA

ZUZENEAN SALEROSTEKO SAREAK GAITZEA

Soberakinei irteera emateko, administrazio eta logistika prozesuak arinduz.

EUSKO JAURLARITZAREKIN, HIRU FORU ALDUNDIEKIN ETA HAZIREKIN ELKARLANEAN ARITZEA

Euskadiko ekoizleen soberakinei irteera emateko, beren saltokien bitartez. Agintaritzek gauzatutako sustapen kanpainetan parte hartzea: Nafarroan "Comemos en casa, comemos de casa" / "Etxean, etxeko produktuak", Kantabrian "Llevamos Cantabria a tu mesa" / "Kantabria zure mahaira eramango dizugu" eta Euskadin "Basque Wine".

Bertako / DeAquí

Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako, Kantabriako, Errioxako, Madrilgo eta Avilako tokiko ekoizleek ekoizten eta merkaturatzen dituzten produktuak identifikatzen ditu.

Selecta

Izendapen hori jasotzen dute kasu bakoitzean ezarritako kalitate eta berme baldintzak eta ekoizpen eta manipulazio irizpide iraunkorrak betetzen dituzten sasoiko eta ahalik eta jatorri oneneko produktuek.

Baserrikoa eta Sasoikoa

Nekazaritzako ustiategi txikietako frutak eta barazkiak balioan jarri nahi ditu, saltokietan zuzenean edo Zentralaren bidez salduz. Gainera, sasoian sasoiko produktuak dira, ekoizpenaren erritmo naturalak errespetatzen dituztenak.

Kantauriko kostaldearen balioa erakutsiz

Kalitate goreneko arrainak

Uvesco Taldearen kokapen estrategikoari esker, hau da, Kantauri itsasoaren ondoko eremu naturalari esker, oso harreman sakona daukagu ontziekin, lonjekin, arrantzaleekin eta Kantauri itsasoarekin, eta, hedaduraz, lehen mailako arrainak eskura ditzakegu. Hala, **eguneroko harremana dugu Kantauriko portu nagusiekin: Hondarribia, Ondarroa, Bermeo, Santander, Santoña, Laredo, Castro Urdiales eta San Vicente de la Barquera**. Horrek guztiak aukera ematen digu aberastasun natural eta

iraunkorreko iturri bat edukitzeko, lonja horien jarduera ekonomikoa sustatzeko, eta kalitate goreneko produktua bermatzeko saltoki guztietako arrandegietan.

Halaber, 2014. urtetik, Lehen Sektorea Sustatzeko eta Euskadiko Landa eta Itsasertza Biziberritzeko Eusko Jaurlaritzaren "Nirea" konpromisoari atxikita dago Taldea.



Elikadura osasungarria eta kalitatezkoa

Elikadura, osasuna eta ongizatea direla-eta gero eta kezka handiagoa duten herritarrei erantzunez

Gure eredua, kalitatezko produktuetara bideratuta dagoena, non produktu freskoak garrantzi handia duen, elikadura, osasuna eta ongizatea dela-eta gero eta kezka handiagoa duten herritarrei zuzenduta dago.

Herritarrek gero eta kezka handiagoa dute beren elikadurarekin, osasunarekin eta ongizatearekin, eta azken urteotako kontsumo joerek berretsi egiten dute gure eredua, kalitatezko produktuetara bideratuta baitago eta produktu freskoek pisu handia baitute. Uvescok sortu zenetik izan du kontzeptu hori,

eta leial mantendu da, urteetan zehar izandako aldaketak.. Eredu horri esker, kontsumitzaileen konfiantza irabazi du Uvescok, eta, horrez gain, bere nortasuna markatu du eta beste merkataritza formula batzuetatik bereizi.

Horrenbestez, elikadura osasungarriaren aldeko apustuaren bitartez eta *premium* aukera eskaintzeko duen konpromisoarekin betetzen du pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko helburu nagusia, eskaintzekin eta produktuekin elikadura beharrak erabat eta berme guztiekin asetzeko.

Elikagaiekiko erantzukizuna, beraz, ekintza hauen bidez gauzatzen da:

Bezeroen hautatzeko gaitasuna erraztuta, aukera askotarikoaren, lehen mailako marken eta neurrira egindako eskaintzen bidez.

Produktuen kalitate eta berme kontrolak betetzen direla bermatuta.

Saltokietan dituen produktuek osasunerako dituzten onurak eta propietate nutrizionalak jakinarazita.

Bakarrik produktu osasungarriak erakusteko eta saltzeko diren espazioak eta lineak jarrita.

Erakusmahaietan produktu freskoaren espezializazioaren alde apustu eginda.

“Zainduz Bizi” programa

Kalitatezko elikaduraren balioa indartzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko, **Uvesco Taldeak zabalkunde programa bat dauka, non Medikuntza eta Nutrizioaren arloko doktore batek informazio interesgarria identifikatu eta zabaltzen baitu elikagaien propietate nutrizionalei eta onuragarriei buruz.**

Programa horrek, **“Zainduz Bizi”** esapiderean pean, kontsumitzailearen ezagutza hobetzen du, hautatzeko gaitasuna handitzen du eta kontsumo iraunkorra eta osasungarria sustatzen du, baita osasunaren eta ongizatearen kultura ere gizartean.

Gainera, Super Amararen bidez, kontsumitzaileek elikadurari eta osasunari buruzko aholkularitza zerbitzua dute. Bertan, Nutrizio arloko doktorearen laguntzarekin, nutrizioari, alergiari, elikadura intolerantziei eta kontsumo lehentasunei buruzko informazioa ematen da.



“Zainduz Bizi Kids” programa

“Zainduz Bizi Kids” programari ekin diogu berriro, 6 eta 14 urte bitarteko ikasleei zuzenduta, eta herritarrak elikadura ohitura osasungarrietan heztea eta joera hori sustatzea du helburu. Edizio honetan, guztira 20 ikastetxek parte hartu dute, eta, horrenbestez, 5.000 ikaslerengan izan du eragina.

Programa hau askari osasungarriak eta nutritiboak banatzean datza -ikastetxe irteeretan ogitartekoak eta fruta banatu, gurasoentzako argitalpen didaktikoak egin, elikadura jarraibideen berri izan dezaten...-, baita ikasleekin dendetara bisitak egitean ere,

aurrez aurre jasotzeko produktu freskoen berri.

2023an, 900 bisita horietan Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu dute, eta zuzeneko harremana izan dute produktuekin: frutak, barazkiak, arraina, haragia... Eta haien jatorria, ezaugarriak eta propietateak ezagutu dituzte.



Freskoaren kalitatea eta zaintza, jatorritik

Jatorririk onena duen produktua, ekoizlerik onenek mandakoa

Elikadura kalitatekoa izan dadin, funtsezkoa da produktuak jatorririk onena izatea eta ekoizle onenetatik etortzea, eta hori are beharrezkoagoa da produktu freskoan. Uvescok konpromisoa hartu du bere

produktuen jatorria eta kalitatea ziurtatzeko, kalitateari dagokionez, baina, era berean, eta bereziki, harategi eta urdaitegiko produktuetan, jatorrizko animalien zaintzari eta ongizateari dagokienez.

Welfair ziurtagiria / Animalien ongizatea

Konpromiso horretan oinarrituta, ENACen egiaztatutako ziurtapen erakundearen bitartez, "Welfair / Animalia Ongizatea" zigilua gehitu diegu "Bertako / Deaqui" eta "Selecta" hegaztiki guztiei, eta, berriki, "Bertako untxia" saileko untxiari.

Era berean, txerri ontziratua Duroc "Selecta" zigilua txertatzeko prozesuan gaude. Dagoeneko baditu prozesu osoan animalien ongizateari buruzko hainbat ziurtagiri (homogeneizatu gabe oraindik). Bestalde, ziurtagiriak indarrean dituzten behi ekoizleekin harremanetan ari gara, pixkanaka zigilu hori produktu guztietan sar dezaten.

Zigilu horren bidez, bermatzen da animaliak egoera onean eta sufritu gabe daudela. Hau da, animaliek elikadura ona dutela (egarririk eta desnutriziorik gabe), ondo ostatatuta daudela (mugitzeko libre eta tenperatura

egokian), osasun egoera onean daudela eta espeziaren berezko portaera egokia erakusten dutela. Zigilu horrek agerian uzten du Uvescok animalien jatorriarekin, zaintzarekin eta ongizatearekin duen konpromisoa, eta kontsumitzailearen eskariari egokitzen zaio, gero eta sentsibilizatuago eta informatuago baitago gaiaren inguruan.

Oilaskoaren Europako Konpromisoa (ECC European Chicken Commitment)

Bestalde, Oilaskoaren Europako Konpromisoarekin (ECC European Chicken Commitment) bat eginda gaude, 2026rako oilasko freskoan, izoztuan eta gure "Bertako/Deaqui" markan osagaien %50 baino gehiago oilaskoa duten produktu guzti-guztietan animalien ongizate estandarrak hobetzeko. 19 herrialdetako 36 erakundek sustatutako itun bat da.


Horrela bada, konpromiso honek, egungo EBko legeak eta erregulazioak betetzeaz gain, ekoizpenean kalitate baldintza jakin batzuk hartzea ezartzen du, hala nola gehieneko biltegiartze dentsitatea ezartzea, hazkunde moteleko espezieak hautatzea eta ingurumena

hobetzeko beste jarduera batzuk -argiztapen naturala eta airearen kalitatea, besteak beste-. Era horretan, beste konpromiso batzuekin bat egin dugu; esaterako, 2025erako erronka hau lortzea: merkaturatzen diren arrautzen %100, baita elaborazio propioetan erabiltzen ditugun arrautzak ere, kaiolarik gabeko oiloenak izatea.



Bio/eko kategorien eta momentuan prestatutako plateren aldeko apustua

Kalitatezko elikagaiak



Bio/eko produktuen kategoria gorantz doan kontsumo joera bat da, eta **600 erreferentziarekin** sustatzen dugu, bezeroak hautatzeko duen ahalmena sustatzeko konpromisoan sakontzeko, eskaintza berezitu eta berritzaile batekin, zeinak komunitatearen ongizatean ere eragiten baitu, kalitatezko produktuak direlako. Halaber, bat dator kontsumitzailearen egungo premiekin, gero eta kezkatuago baitago bere osasunarekin eta ongizatearekin, eta produktuen kalitatea eskatzen eta balioesten baitu, azukre gutxi edo osagai naturalagoak dituztelako.

Kalitatezko elikaduran pauso bat harago ematea izan da supermerkatu batzuetan **“Sukaldaritza Aparta”** atal berriak sartzea (kontsumitzeko prest dauden plater beroak), momentua bertan haragi errea prestatzeko labea eta lurrunezko sukaldea sartzea harategi eta arrandegietako salmahaietan. Horren bidez, kontsumo osasuntsuaren balioak indartzen dira, produktu fresko, osasungarri eta “errazen” kontsumoa lehenetsiz, elikagai prozesatuak dituzten beste sukalde azkar batzuen aldean.



Iraunkorra eta eraginkorra

Beroketa globala eta klima aldaketa dira gizarteak orain zein etorkizunean aurre egin beharreko kezka eta erronka handietako batzuk, eta horietara bideratu behar ditugu gure ahaleginak enpresok, sortzen dugun jarduera iraunkorra izan dadin eta jarduera hori egiten dugun ingurunea zaintzeko beharrezko tresnak jar ditzagun.



Iraunkortasun plan estrategikoa

Lehentasuna duten iraunkortasun arloko jarduera esparruak

Beroketa globala eta klima aldaketa dira gizarteak orain zein etorkizunean aurre egin beharreko kezka eta erronka handietako batzuk, eta horietara bideratu behar ditugu gure ahaleginak enpresok, sortzen dugun jarduera iraunkorra izan dadin eta jarduera hori egiten dugun ingurunea zaintzeko beharrezko tresnak jar ditzagun.

Testuinguru horretan, 2023a izan da gure iraunkortasun estrategia garatu dugun urtea. Horren baitan, Uvesco Taldeak datozen urteetan jarraitu nahi dituen helburuak ezarri dira (2025eko eta 2030eko mugarriak zehaztu

dira), eta helburu horiek jomuga zehatzetara eramán dira.

Estrategia horretan, materialtasun bikoitzaren azterketaz gain, Taldearen iraunkortasun politika idatzi da, Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Batzordeak onartua, eta Uvesco Taldeko zuzendaritzak berretsia. Bertan, erakundeak iraunkortasunarekin duen konpromisoa berresten da, eta arlo horretako jarduerak gidatuko dituzten printzipioak zehazten dira.





Horrela, materialtasun bikoitzaren lehen azterketa egin dugu (Uvesco Taldeak GIHetan duen eraginean dago islatuta). Horren helburua izan da Uvesco Taldeak bere ingurunean duen azterna ezagutzea, bai eta enpresan eragin materiala izan dezaketen iraunkortasun arrisku posibleak ezagutzea ere.

Azterketa hori egin ondoren, **iraunkortasun estrategia bat eta ekintza plan bat zehaztu ditugu, 2024-2030 eperako, epe jakin batean lortu beharreko helburu zehatzekin. Estrategia hori bost ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da, eta horietako bakoitzerako ekintza eta helburu zehatzak ezartzen dira:**

Ekonomia zirkularra

Ardatz horren barruan, lau lan ildo nagusi zehaztu dira: birziklapena, ontziratzea, ura eta elikagaiak alferrik galtzea. Lerro horien barruan ezarri diren jomugen helburua da erakundearen ingurumen inpaktua ahalik eta txikiena izatea -bai kontsumoaren prebentzioaren bidez (uretan, ontziratzean edo birziklatzearen ildoan berrerabiltzean), bai sor daitezkeen soberakin guztiei bigarren bizitza bat emanez-.

Neutraltasun klimatikorantz

Neutraltasun klimatikoaren barruan, karbono azterna kalkulatu, murriztu eta konpentsatzera bideratuta daude lerroak. Era horretan, helburuen artean 3. irismeneko isuriaren kalkulua sartzen da, eta horixe da erakundeak ingurumen metrikeri dagokienez landu beharreko erronka konplexuenetako bat. Halaber, isuriak murrizteko helburuak planteatzen dira, logistika optimizatzean eta energia berriztagarrien aldeko apustua egiten jarraitzean oinarrituta. Azkenik, Uvesco Taldean egiten den bezala, nekez murriztuko diren isuriak konpentsatzeko konpromisoa ezartzen da, tokiko proiektuen bidez, urtero-urtero.

Produktu iraunkorrak

Ardatz honetan, hornitzaileen ESG politika bat ezartzea da helburu nagusia. Horrela, Uvesco Taldeak izan dezakeen trakzio efektua indartu nahi da, bere balio katea iraunkorragoa izan dadin, eta enpresako iraunkortasuna bere prozesuetan geratu ez dadin, eta harago zabaldu dadin. Era berean, animalien ongizateari eta ekoizpen iraunkorrari buruzko helburuak zehaztu dira, haragiari eta arrainari dagokienez. Azkenik, IFA taldearekin batera, produktu osasungarriaren estrategia bat garatu nahi da, BMren marka propioan osagai kaltegarrien kantitateak murrizteko (koipea, gatz, etab.).

Ongizatea, berdintasuna eta aniztasuna

Hori da blokerik sozialena, pertsonen ongizateari buruzkoa. Horren barruan, prestakuntza, berdintasun, aniztasun eta ongizate neurriak zehazten dira.

Ingurunearekiko inplikazioa

Azken bloke honen barruan, Uvesco Taldea kokatuta dagoen lurralde guztietan eragile izatea sustatzen duten neurriak zehazten dira. Horrela, inguruneari laguntzeko lan ildoak daude (dohaintzen, babesletzen, kolektibo espezifikoen deskontuen eta bestelako bidez), boluntarioria plan bat ezartzen da, eta datozen urteetan jarraitu nahi den elkartasun kanpainen ildoak zehazten da.

Helburu bloke horiek guztiak lortzeko, ekintza zehatzak Ekintza Plan batean jasotzen dira, eta, bertan, horiek gauzatzeko arduradunak eta epeak ere ezartzen dira. Ekintza plan hori bi hilean behin berrikusten da Gizarte

Erantzukizun Korporatiboko Batzordean, helburu bakoitzean lanean eta aurrera egiten ari direla egiaztatzeko.

Lankidetza: funtsezkoa Uvesco Taldearen estrategian

Uvesco Taldeak ezarri dituen helburu horiek guztiak lortzeko, Taldea osatzen duten pertsona guztiak inplikatuko dira, eta beste eragile batzuekin lankidetzan ere arituko dira -iraunkortasunerako bidea ekintza bateratua baita, 17. GIHK ondo adierazten duen bezala-

2022an, Uvesco Taldeak aurrerapauso handia eman zuen, inguruko gainerako eragileekin zuen harremanean, bi aliantza handiri esker:

Nazio Batuen Mundu Ituna, zeinarekin konpromisoa berritu egin den 2023an, eta **Basque Ecodesign Centerrera atxikitzea**.



LANKIDETZA: FUNTSEZKOA UVESCO TALDEAREN ESTRATEGIAN

BASQUE ECODESIGN CENTERRERA ATXIKITZEA

Basque Ecodesign Center aliantza publiko-pribatua da, Eusko Jaurlaritzak sustatua, euskal enpresa sarean ekonomia zirkularrean aurrera egiteko. Euskadiko enpresa handienetako hemezortzi dagoeneko batu dira bertara. 2023an, Uvesco Taldeak hiru proiektu handi garatu ditu foro horren barruan: kudeaketa zirkularraren tasaren kalkulua, karbono aztarnaren 3. irismenerako prestaketa eta ingurumen informazioaren sistematizazioa. Gainera, hainbat lantaldetan parte hartu da, gainerako erakundeekin batera, gai batzuetan aurrera egin ahal izateko, hala nola europar taxonomian edo erosketa pribatu berdean.

PHENIX ETA OREKA PROIEKTUAK

Bestalde, Uvesco Taldeak aurten gauzatu dituen lankidetzak proiektuen artean, badira modu berezian nabarmentzen diren bi. Uvesco Taldeak tradizio luzea du produktuak Elikagaien Bankuari emateko, baina produktu batzuk, berezkoak dituzten ezaugarriengatik (aurki iraungiko direlako, hotz katea mantentzeko beharra dutelako, etab.), ezin dira biltegitik modu zentralizatuan eman.

Horregatik, bi proiektu pilotu garatu dira, **Madrilgo Phenixen eta Bilboko Oreaken eskutik**, produktuak zuzenean dendatik emateko. Hala, dohaintzan eman daitezkeen produktuen kopurua handitu egiten da, eta, aldi berean, elikagaiak ematen zaizkien elkartearen kopurua ere ugaltu daiteke -ingurumenari zein gizarteari lagunduz-.

NAZIO BATUEN MUNDU ITUNAREKIN BAT EGITEA

Nazio Batuen Mundu Itunari atxikitzeak (NBEren ekimena, enpresa iraunkortasunaren buru, mundu mailan) ekintza arduratsuak garatzeko eta estrategia lau arlotan lerrokatzeko konpromisoa dakar: giza eskubideak, lan arauak, ingurumena eta ustelkeriaren aurkako borroka. Gainera, itunak 17. GIH lortzeko aurrerapausoak emateko konpromisoa jasotzen du -17. GIH: helburuak lortzeko aliantzak-, tokiko erakundeekin zein beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzea funtsezkoa baita iraunkortasunean aurrera egiteko.

AKORDIOAK UDALEKIN ETA MANKOMUNITATEEKIN

Bestalde, besteak beste, **Iruñea, Getxo, Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Logroño eta Madrilgo** udal eta mankomunitateekin akordioak ditugu, **gure supermerkatuetan hondakin organikoen edukiontziak jartzeko**, era horretan, eragindako kokalekuetan dauden dendetan frakzio edo zati hori birziklatzen dela bermatzen dugu. Asmoa da Uvesco Taldeko denda guzti-guztietan materia organikoa birziklatu ahal izatea, eta, horretarako, udalekin eta mankomunitateekin elkarriketetan jarraitzen dugu.

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZA PROIEKTUETAN PARTE HARTU DUGU, INGURUMEN GAJETAN AURRERA EGIN AHAL IZATEKO

ODSFOOD

Basque Food Klusterrak sustatuta, proiektu horren helburua zen GIHak ezartzen eskarmentua zuten enpresa handiek ETEak trakzionatu ahal izatea, iraunkortasunerantz aurrera egiteko.

URBANKLIMA 2050

Proiektu horren jarduera ugarietako bat Gipuzkoako enpresetan ekonomia zirkularren inguruko ezagutza sortzea izan zen, non Uvescok bere prozesua partekatu zuen.

ONTINFOOD

Basque Food Klusterrari buruz aritu zen, ontzien birziklagarritasuna hobetzea sustatzen duena.

BASQUE CIRCULAR SUMMIT

Europa hegoaldeko Ekonomia Zirkularreko ekitaldirik handienaren barruan, Uvesco Taldeak bi ponentzian parte hartu zuen: deskarbonizazioaren etorkizuna eta elikadura kateko iraunkortasuna.

"ZIRKULARRAK" ERAKUSKETA

Ekodiseinatutako 175 produktu baino gehiagoren erakusketa horren barruan, Uvescok %95ean birziklatutako plastikoarekin fabrikatutako erretiluekin parte hartu zuen.



%100 Zirkularra izatearen Estrategia Ziurtagiria (AENOR)

Iraunkortasun strategiaren garapenarekin paraleloan. Uvesco Taldeak AENORen %100 Zirkularra izatearen Estrategia Ziurtagiria lortu du, **eta elikagaiak banatzeko Espainiako lehen enpresa izan da hori lortzen**. Ziurtagiri hori lortzeko auditorietan, estrategia ez ezik, elaborazio prozesu osoa eta helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintza erantsiak ere aztertu dira -hala nola Prestakuntza Plana (Uvesco Taldeko langile guztien inplikazio eta sentsibilizaziorik gabe, ezinezkoa izango da) edo Zuzendaritzaren Berrikuspena, erakundearen maila gorenean baliozkotu dela ziurtatzeko-. Era berean, egiaztatu da bertan

planteatzen diren estrategia eta helburuak koherenteak direla eta adierazleak ezarri direla, jarraipena egin ahal izateko.

2023an, lehen auditoria gainditu da, eta horrekin zigilua lortu da. Hurrengo urteetan, auditoriak egingo dira, urtero-urtero, helburuen irismen maila eta strategiaren aurrerapen maila egiaztatzeko -horrek ziurtatuko du, pixkanaka, gure helburuak lortzea-.

Ingurumenaren kudeaketa

Kontsumo Handiaren orainaren eta etorkizunaren erronka da haren jarduerak ingurunean izaten duen eragina ahalik eta gehien murriztea, esparru guztietan merkataritza kudeaketako jarduera bat garatuz: iraunkorra eta ingurumena errespetatzen duena, eta gizarte ongizate hobean eragiten duena.

Sektorearen helburu handienetako bat da, eta banaketa katearen eremu guztiei eragiten die. Horregatik, eragile guztiei eragiten dien zeharkako kudeaketa eskatzen du, eta, batez ere, jardueraren parte diren pertsona guztiek kontzientzia har dezatela. Behin kontzientzia hartze hori eginda, funtsezkoa da hobetu beharreko arloak aldeztu aurretik aztertzea. Hobekuntza horiek hautemandakoan, ezarri

beharreko konpromiso estrategiak erabaki behar dira, jarduera iraunkorragoa izan dadin; alegia, ingurumena errespetatzen duena eta bizikidetzaz ahalbidetzen duena, inguruko eragileekin harmonian.

Uvesco Taldean urteak daramatzagu gure inpaktua murrizteko lanean, enpresaren hainbat ataletan eragina duten hainbat ekintzaren bidez. Horrela, azken urteotan, hainbat ziurtagiri eta aintzatespen lortu dira ingurumen arloan, hala nola **hiru Lean&Green izar, emisioak murrizteagatik, edo AENORen Zero Hondakin ziurtagiria, Irungo plataforma logistikoetan**.

0 CO₂ isuri, kontsumo elektrikoagatik: erronka bete dugu

Energetikoki %100 iraunkorra den supermerkatu eredua

2023an, Espainiako akordio aitzindarietako bati eutsi zaio; horren arabera, Uvesco Taldean kontsumitzen dugun energia elektrikoaren %100 berriztagarria da. Hori 2018an sinatutako PPA (Power Purchase Agreement) bati esker lortu zen. Hala, Taldeak kontsumitutako energia guztia jatorri berriztagarrikoa da, Usagreko (Badajoz, Extremadura) Nuñez de Balboa eguzki plantatik datorrena. 500 MWp-tik gorako edukiera dauka, eta Europako eguzki plantarik handienetakoa da.

Azpimarratzekoa da, Uvesco Taldean, lehen banaketa enpresa izan ginela konpromiso hori hartzen, eta horri esker, **2023an, 28.366 tona CO₂ baino gehiago isurtzea saihestu dugula**. Horrela, ekonomia deskarbonizatzeko daukagun konpromisoan aurrera egin dugu.

Uvesco Taldearen energia kontsumoa taula honetan laburbiltzen da:



Supermerkatu eko-eraginkorrak

Energia kontsumoa aurrezte eta murriztea

Iraunkortasunaren arloko beste estrategia bat, hain zuzen, saltokiak berritzea eta mantentzea da, energia kontsumoari dagokionez ehuneko ehun eraginkorrak diren supermerkatuak izan daitezen eta baliabideak optimizatzen dituzten teknologiak txertatzeko.

Inbertsio horiek denden eraberritze eta mantentze planari eragiten diote. 2023an, hotz ekipoetan zentratu dira jarduketak, hainbat neurriren bidez; esaterako: hotzezko eta izotzezko horma irudietan ateak sartzeari, -produktuen tenperatura egokia mantentzeko, energia ihesa saihesteko eta dendako klimatizazioa hobetzeko-. Beste urte batzuetan

argi aldaketak egin badira ere, kontsumo txikiko LED bonbillak eta fluoreszenteak sartzeko, aurten jada ez da ildo horretako jarduerarik egin, denda gehienek argiztapen mota hori baitute.

Azken helburua da energiaren kontsumo orokorra murriztea eta, ondorioz, ingurumen eragina minimizatzea, enpresaren merkataritza kudeaketak sortzen dituen berotegi efektuko gasen igorpenak murriztuz.

INBERTSIOA ERAGINKORTASUNEAN 2023. URTEA

ARGIZTAPENA
8.482,53€

HOTZEKO ALTZARIAK
132.478,55€

GUZTIRA
140.961,08€

AURREZTU DEN ENERGIA
KWH/URTE
101.799,6KWh

AURREZTU DEN ENERGIA
TN CO₂/URTE
27,48T CO₂



Karbono aztarna murriztea: ardatz estrategikoa

Logistika, lehentasunezko ardatza

Garraioa da erakundeak ingurunean duen inpaktu handienetako bat, banaketa enpresa bat denez, jardueraren zati oso garrantzitsua baita. Uvesco Taldean, garraioa hiru bloke bereizitan banatu daiteke: hornitzailea-zentrala, zentrala-denda eta denda-bezeroak. Horietako lehenengoan, Uvesco Taldeak ez du jarduteko ahalmenik, hornitzaileek eurek egiten baitituzte entregak, Taldeko plataforma logistikoetan.

Zentrala-denda garraioa da Uvesco Taldeko Logistika Sailaren ardatz nagusia. Bertan, inpaktua murrizteko egiten diren jarduerak hauetara bideratzen dira: ibilbideak optimizatzea, kamioiak betetzeko tasa handitzea eta flota berritzea. Era berean, aldizka, kamioi hibridoekin eta elektrikoekin probak egiten dira, horiek teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren egiaztatzeko.

Aldi berean, garraio iraunkorreko eta mugikortasuneko formula berriak bilatzeko ahaleginean, zeintzuek deskarbonizaziorantz aurrera egingo duten, kamioi hibrido bat sartu da flotan, Irungo (Gipuzkoa) planta logistikoko ibilbideetako baterako.

Beste arlo batean ere aspaldidanik ari gara lanean, dendatik egiten dugun etxez etxeko banaketa are iraunkorragoa izan dadin. Hor

sartzen dira, hain zuzen, bai Internet bidezko erosketak, bai modu fisikoan egiten direnak, baina bezeroek erosketa etxera eramateko eskatzen dutenak. Urteetan, zerbitzu horretarako furgoneta elektrikoak erostea bultzatu izan dugu. Horrela, ibilgailu mota horiek baliatuta, oinez banatzearekin batera -saltokietatik hurbilen dauden eta motzenak diren ibilbideetarako-, etxez etxeko zerbitzuko joan-etorrien %27,8 iraunkorrak izatea lortu dugu, eta horrek zuzenean eragiten du karbono aztarna murriztea.

Konpromiso hori supermerkatu jakin batzuetan ditugun ibilgailuak kargatzeko puntuekin indartzen da.

JOAN-ETORRI
IRAUNKORRAK
%27,8




Hartutako neurrien emaitza gisa, energia eraginkortasun eta kontsumo berriztagarriko neurriekin batera, **%48,30 murriztu ditugu CO₂ isuriak 2018az gero**, urte horretan egin baitzen lehen neurketa (CO₂ kg/palet). Aztarnaren irismenak plataforma logistikoetan egindako isuriak nahiz haietatik supermerkatuetarako garraioan egindakoak jasotzen ditu. Neurketa horretan, egindako ibilbideen %100 eta garraiatutako paleten %100 aztertu dira, eta neurketarako datuak lortzeko prozesuetan kalitate maila handia erdietsi da.

Lorpen horiek egiaztatuta, hirugarren Lean & Green izarra lortu genuen. **EY (Ernst & Young) nazioarteko aholkularitza enpresak ikuskatu, eta AECOCek emandako bereizgarria da**, eta geu gara hori lortu duen Espainiako lehen hiru enpresetako bat. Nabarmentzekoa da isuriak hiru urtean murriztu genituela, eta epe hori egiaztapen horrek eskatzen duen epea baino askoz handiagoa dela.



EKINTZA PLANA



Karbono aztarnaren konpentsazioa

Gipuzkoako Karbonoaren Borondatezko Funtsera atxikitzea

2022an, Uvesco Taldeak aurrerapauso handia eman zuen deskarbonizazioarekin hartutako konpromisoan, isuriak partzialki konpentsatzen hasi baitzen, eta ekintza horri eutsi zaio 2023an ere.

Konpentsazio hori Naturklimak (Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioak) sustatutako Gipuzkoako Karbonoaren Borondatezko Funtseren bidez egiten da. Horrela, konpentsazioak balio erantsia du: karbonoa xurgatzeko ekintzak Gipuzkoan egiten dira, eta, beraz, inaktua sortzen den toki berean egiten da konponketa ekintza ere.

Hori bat dator, zuzenean, Uvesco Taldeak tokiko komunitatean inplikatzeko duen filosofiarekin, bai maila sozialean bai ingurumenari dagokionez.


Bigarren urte honetan, Uvesco Taldeak bere isurketen %10 konpentsatu du -iazko bikoitza-, eta konpromisoa hartu du datozen urteetan ere, gutxienez ehuneko horri eutsiko diola.

Zehazki, aurten 525,76 tona CO₂ konpentsatu dira, Aiako Harrietako parke naturalean

biodibertsitatea kontserbatzeko lau hezegune txiki sortuz, Irungo plataformetatik kilometro gutxira.

ISURI KONPENTSATUAK: %10





Elikagaiak alferrik galtzeko joera murriztea

Erronka garrantzitsuenetako bat, antolakuntzari dagokionez, denda eta biltegietako *stocka* behar bezala kudeatzea da

Hondakinen kudeaketako lehen urratsa prebentzioa izan behar da. Horrela, Uvesco Taldean urteak daramatzagu logistikan berrerabil daitezkeen kutxekin lanean, eta paleten pool baten bidez funtzionatzen dugu, paletak berrerabiltzeko.

Nolanahi ere, erronka garrantzitsuenetako bat, antolakuntzari dagokionez, denda eta biltegietako *stocka* behar bezala kudeatzea da, eta elikagaien soberakinei irteera bat eman ahal izatea.

Elikagai Bankuak

Horrela, biltegien barruan, edozein arazorengatik (bilgarrian hausturak dituztelako, iraungitze data hurbila dutelako, etab.) kontsumorako egokiak diren baina salmentarako egokiak ez diren artikulu guztiak Elikagaien Bankuari ematen zaizkio.

Era horretako artikuluak egunero biltzen dira Irungo eta Corrales de Buelnako gure biltegietan.

Sistema horrekin hiru helburu iraunkor betetzen dira:

3

Helburu iraunkor

- 1** Elikagai hondakinak murriztea, bestela eragin negatiboa izango luketen produktuak berreskuratuz, eta, horretarako, dendako langileek iraungitze datak behar bezala kudeatzen parte hartzen dute.
- 2** Kalitate bikaineko zerbitzu balioak indartzea, eta bezeroarekin konfiantza sortzea, izan ere, iraungipenen egutegia etengabe eguneratzen da dendan.
- 3** Berreskuratutako produktuek eragina daukate gizartean baztertuta bizitzeko arriskuan dauden familien bizimodua hobetzen, Elikagaien Bankuen bitartez.

“Too Good To Go” programa

Elikagaiak alferrik galtzeko joera murrizten laguntzen duten beste ekimenetako bat “Too Good To Go” programa da, Uvesco Taldeko Super BM denda guztietan aplikatzen dena. Aplikazio mugikor bat da, eta dendako eguneroko produktuen soberakina aprobetxatzea ahalbidetzen du, prezioa jaitsita duten sortak salduta.

2023an, 90.287 sorta baliatu genituen guztira. Hau da, alferrik galdu gabeko 90 tona janari eta isuri gabeko 225,7 tona CO₂.

SALBATUTAKO PACKAK
90.287

Dohaintzak elkarte solidarioei

Super Amara markako supermerkatuetan, bestalde, **“Azken minutua” proiektuarekin** lankidetzan ari gara. Hala, iraungitze datatik gertu dauden eta zentralera itzuli ezin diren elikagai fresko eta ontziratuak gizarte erakundeei ematen zaizkie, dendatik zuzenean. Programa horri esker, 22.717 kg elikagai baino gehiago eman dira dohaintzan.

Era berean, 2023an, Taldeko denda guztietan ezarri da **“markdown” delakoa, eta, horren bidez, iraungitze data hurbila duen produktu oro deskontu batekin saltzen da. Deskontua handituz doa iraungitze data hurbildu ahala.**

Jarduera horiek guztiak elikagaien murrizketari eta elikagaiak alferrik ez galtzeari buruzko lantalde espezifiko baten barruan egin dira. Talde hori Uvesco Taldeak sortu zuen, helburu

hori aztertzeko *-stocka* hobetzeko eta eskaerak optimizatzeko neurriak biltzen ditu, elikagaien soberakina sortzea saihesteko-.

Sortzea saihestu ezin den soberakin ororentzat, eta arrazoi desberdinengatik “Too Good To Go” bidez edo “markdown” bidez irtenbiderik eman ezin zaionarentzat, zer aukera dauden aztertzen ari dira, ongintzako elkarteei dohaintzak egiteko, dendatik zuzenean, **Phenix eta Oreka proiektu pilotuen** bidez.



Hondakinak bereiztea eta birziklatzea

Konpromisoa ekonomia zirkularrarekin

Tratamendu bereizia hondakin mota bakoitzerako

Iraungitze datak kudeatzea eta produktuak dohaintzan ematea da alferrik galdu beharreko produktuen bolumena murrizteko lehen urratsa. Hala ere, **ez sortzea ezinezkoa den hondakinei dagokienez, beharrezkoa da horiek behar bezala bereiztea eta tratatzea**. Uvesco Taldean, konpromiso hori bete dugu, elikagaien banaketako gure jardueraren

ondoriozko **hondakin mota bakoitzari dagokion tratamendua emanda**. Era horretan, gure lantegi logistikoan tratatu ondoren, inguruko **beste enpresa espezifiko batzuetara bideratzen ditugu, beste material batzuk ekoizteko berraprobatzeko**. Horren ondorioz, eragin positiboa sortzen da ekonomia zirkularrean eta balioaren sorkuntzan.





HONDAKINEN KUDEAKETA GURE ZENTROETAN

KARTOI, PLASTIKO, POREX ETA EGURREZKO MATERIALAK

Bai dendetan, bai plataforma logistikoetan, modu bereizian botatzen dira, ondoren kudeatzaile baimendunei entregatzeko. Hondakin horiek birziklatu egiten dira, material bereko ontziak fabrikatzeko.

ONTZIRATUTAKO ELIKAGAIAK

Gipuzkoako plantetan sortutako elikagai ontziratuen hondakin guztiak Mendigorriko (Nafarroa) kosorkuntza planta batera bidaltzen dira, eta hor biogasa ekoizten da.

SANDACH HARAGIA

Haragi hondarrak Gipuzkoako planta logistikotik Seberia Donostiarra (Donostia) enpresara bideratzen dira, eta Kantabriako planta logistikotik Riograsara (Errioxa), xaboi eta larru sintetikoak egiteko. Erdialdean, berriz, dendaz denda jasotzen dituzte horretarako baimena duten kudeatzaileek.

SANDACH ARRAINA

Barna enpresara bidaltzen dira, Mundakan (Bizkaia), eta arrain irinak egiteko erabiltzen dituzte. Erdialdean, berriz, dendaz denda jasotzen dituzte horretarako baimena duten kudeatzaileek.

ORGANIKOA -KONTSUMORAKO EGOKIAK EZ DIREN FRUTAK, BARAZKIAK ETA OGIA-

Konposta eta biogasa egiteko erabiltzen dira. Irungo instalazio logistikotik Mendigorriara bidaltzen dira, eta establezimenduetan udalen bidez kudeatzen dira.

ERREFUSA

Birziklatzeko bereizi ezin den materiala zabortegira bidaltzen da.

Zero hondakin: birziklatzearekin dugun konpromisoa baliozkotzea

Irungo plataforma logistikoen birziklatze sistemak AENOR Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkartearen Zero Hondakin ziurtagiria jaso du. Aitorpen hori 2021ean lortu genuen lehen aldiz, eta 2023an berretsi egin dugu, hirugarren urtez jarraian. **2023ko maiatzean egindako jarraipen auditoriak ziurtatu du gure birziklatze tasa %94,48koa dela**, eta gutxieneko baldintza gainditu dugula.

Auditoriak egiaztatzen du ea hondakin horiek behar bezala bereizten diren, eta horretaz gain, trazabilitate osoa ere egiaztatzen du, hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatuz, azken tratamendura arte. Urtebetea sortutako hondakin guztiak aztertzen dira. Hala, hondakinak bereizi, biltegitatu eta gero birziklatze enpresetara bidali direla aztertzen da. Halaber, egiaztatzen da kudeatzaile horiek hondakinak birziklatzen dituztela, eta, horrela, trazabilitate osoa aztertzen da, azken

tratamenduraino. Era berean, hondakinak prebenitzeko neurriak aztertu ditugu, hala nola Elikagaien Bankuari egindako dohaintzak.

Ziurtagiri horrek balioa ematen dio hondakinari ematen diogun tratamenduari, eta Taldean hondakinen eta iraunkortasunaren arloan egiten dugun ahalegina eta lana aintzatesten ditu.

BIRZIKLAPEN TASA
(IRUNGO LANTEGIAK)
%95

Kafe kapsulak birziklatzea eta berrerabiltzea: eragin zirkularra. Hondakinak Prebenitzeko 2022ko Europako Sarietan finalista

Uvesco Taldean, sortzen ditugun hondakinak ahalik eta hobekien kudeatzeaz gain, pauso bat haratago joan nahi izan genuen, eta bezeroei eta bizilagunei beren hondakinak ahalik eta erosoan eta erraz birziklatzen

lagundu. Horrela, birziklatzeko edukiontzia jarri genituen salmenta gunean, beren izaeragatik zalantzak sorrarazten dituzten edo biltegitatzeko edukiontzi zehatzik ez duten hondakinentzat.



Puntu garbi horietan, bezeroek **kafe kapsulak sukaldeko olioia, toner kartutxoak eta pilak** utz zitzaketen. Edukiontzi horiek balio erantsia zuten; izan ere, kafe kapsulak baliatuz fabrikatuta zeuden, eta horrek proiektua zirkular bihurtzeaz gain (kafe kapsulak edukiontzi berri bihurtzen dira), baliagarria da herritarrei ikusarazteko hondakin horiek bigarren bizitza izan dezaketela. Puntu horietako bakoitza fabrikatzeko, 15.000 kafe kapsula inguru erabili genituen (hori guztia Kafea Ekograsen laguntzarekin, edukiontziak fabrikatzeaz gain, kapsulak eta olioia jasotzeaz arduratzen den enpresa kudeatzailea baita).

Ekimen horrek irabazi zuen Euskadiko Hondakinen Prebentzio Astean emandako saria, eta, gainera, European Week for Waste Reduction ekimenak emandako sarietan hiru finalistetako bat izan zen.

Ez da Uvesco Taldea sari horietan finalista den lehen aldia. Esaterako, 2017an, hondakinak kudeatzeko gure sistemagatik ere finalista izan bainekin.

Aldi berean, supermerkatu guztiek pilak utzeko edukiontziak dituzte bezeroen eskura. Gainera, 90 supermerkatu baino gehiagotan argi bilketak egiteko puntuak ditugu, eta horietan, bonbillak eta fluoreszenteak utzi ahal izango dituzte gure bezeroek.



Eko-ontzien erabilera eta plastiko birziklatuaren aldeko apustua

Ontzien diseinua eta kudeaketa, iraunkortasun estrategiaren funtsezko ezaugarria

2023an, Uvesco Taldeak 145 milioi ontzi baino gehiago merkaturatu ditu, eta, horren ondorioz, ontzien diseinua eta kudeaketa bere iraunkortasun strategiaren funtsezko parte da.

Azken urte honetan, Uvescok duela denbora asko hasitako bideari jarraitu dio, ontzien birziklagarritasuna hobetzea eta horietan plastiko birziklatua sartzeari ardatz hartuta. Horrela, 2023an, ontzietatik erabat desagerrarazi da porexa, hots, birziklatu ezin den materiala.

Aldi berean, aurrerapausoak eman ditugu gure ontzietan birziklatutako plastikoa sartzeko prozesuan. Porex guztiaren ordez, %95ean birziklatutako PET plastikoa eta kartoizko erretiluak jarri ditugu.

Era berean, egin berri den zukurako botilak %100 birziklatutako materialez egindakoak dira orain. Gainera, gure bezeroen artean berrerabilpena eta hondakinen murrizketa bultzatzeko, fruta eta barazki sareak eskaintzen ditugu denda guztietan.

Horrela bada, 2020an, ontzietan erabilitako plastiko guztiaren %34 zen plastiko birziklatua (63.000 kg inguru), eta, 2023an, plastiko guztiaren %50,12. Horrek esan nahi du 113.936 kg plastiko birziklatu baino gehiago erabili direla.



Ordainagiri digitala

Paper gehiago aurrezte

BM Supermerkatuen eta Super Amararen aplikazio mugikorren bidez, paperaren kontsumoa murriztea lortu genuen, lehenik eta behin, bonuak emanda eta mugikorrean deskontuak eginez, eta bigarrenik, ordainagiri digitalaren bidez. Hori eskatzen duten bezeroek erosketa guztiak ikus ditzakete aplikazio mugikorrean, eta, era horretan,

supermerkatuko kutxan ordainagiria inprimatzea saihestuko dute.


Gaur egun, gure saltokietako 55.354 bezerok dute ordainagiri digitala, eta, beraz, paperaren kontsumoa aurrezten ere laguntzen dugu.

APP BEZEROAK
283.104

BM SUPERMERKATUAK	SUPER AMARA
268.844	14.260

ORDAINAGIRI DIGITALAREN BEZEROAK
55.354

BM SUPERMERKATUAK	SUPER AMARA
50.704	4.650





Irun-Oiartzun errepidea, z/g
Bidaurre Ureder Poligonoa (Bentak auzoa)

20305 IRUN (Gipuzkoa)
Telefonoa: (+34) 943 668 000

Polígono Industrial Barros
Parcela 23

39400 LOS CORRALES DE BUELNA (Cantabria)
Telefonoa: (+34) 942 848 120